

Elkarrizketa
politikoak

ABADIÑO



"Herrian mugikortasunagaz
ditugun arazoak konpondu
gura ditugu hainbat auzotan"

Abadiño • ANBOTOK elkarrizketa politikoen txanda hasi du, Mikel Urrutia Abadiñoko alkateagaz. Urrutiak legegintzaldi honetako erronkak azaldu ditu. • **2-3**



Anboto Kilometro Bertikala lehiatuko dute bihar Arrazolan

Kirola • Emakumeetan lehia estua espero da Oihana Azkor-bebeitia eta Lide Urrestarazu korrikalarien artean. • **26**



Zestalaririk onenak txapelik preziatuenaren bila Durangon

Kirola • Jai Alai League ligako zortzi zestalaririk onenek Durangon jokatu dute Lauko Finala, datozen astelehen bietan. • **29**

Jaiez gozatzera!



Durango • Durangon atzera kontaketa hasi da San Fausto jaiak hasteko. Datorren eguaztenean, urriak 11, Karrika antzerki taldeak txosnetako txupinazoa jaurtiko du. Eta urriaren 12an Mugarra Triatloi taldeko kideak udaletxeko balkoira igoko dira jaiari hasiera ofiziala ematera. • **Gehigarria 13-25**



Zornotza Manga More egingo dute, urriaren 13tik 15era

Kultura • Manga eta Anime kulturen epizentro bihurtuko da Zornotza beste urte batez. Izan ere, urriaren 13tik 15era Manga More jaialdia egingo dute bertan. • **27**

HOME SCHMIDT HOME



urriaren 2tik 31ra bitartean
URTEURREN ESKAINTZAK

ZURE SUKALDEA
6.000€-tik* aurrera

* Ikusi baldintzak dendan.



Mikel Urrutia Galan

Abadiño alkatea

ABADIÑO | 1983

“Osakidetzak esan digu asmoa duela Matienako anbulatorioko pediatria plaza egonkortzeko”

Mikel Urrutia Abadiño alkateak hurrengo lau urteetarako erronken inguruan erantzun die ANBOToren galderei

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Legegintzaldi berriko lehenengo 100 egunak igarota, ANBOTOK Durangaldeko alkateen elkarrizketa txanda hasi du. EH Bilduko Mikel Urrutia Abadiño alkatea da lehenengo elkarrizketatua. Gobernu aldaketak koalizio berria ekarri du Abadiño Udalera: EH Bildu eta Jose Luis Navaroren Abadiño Independente Berriak.

Maila pertsonalean, zelan alkate karguan?

Alde batetik, ardura handiagaz hartu dut kargua. Herritarrek dituzten zalantzak, kezak eta konpondu beharreko egoerak askotan nigana heltzen dira eta, taldekideekin kontsultatu dezakedan arren, azken erabakia neurea da.

Maila pertsonalean ilusioz hartu dut postua. Urte askoan egon naiz udal dinamikara lotuta. Azken legegintzaldian liberazio erdigaz egon nintzen eta udala hobeto ezagutzeko balio izan zidan. Orain, aukera izateak pentsatzen dugun hori aurrera eramateko ilusioa ematen du. Beste aldetik, maila emozionalean, lehen askatasun handiagoagaz ibiltzen nintzen herrian familiakoekin eta lagunekin. Gaur egun, edozein momentutan edozeinek galdetu edo komentatu diezazuke zer edo zer.

Bere sasoiari, Jose Luis Navarro gobernuan egon zenean, pleno askotan tentsioa igartzen zen zuen artean. Orain gobernu osatu duzue. Sasoi hartan gatxa izango zen egunen ba-

tean elkarregaz gobernatuko zenutela imajinatzea. Hartu-eman hori zelakoa da gaur egun?

Politikagintzan azken urteotan gertatzen ari diren gauza batzuk pentsaezinak ziren orain 10 urte. Baina politikan aldaketa sakonak gertatu dira. Uste dut horrek ere eragina duela Abadiñon sortu den elkarlan honetan. Egia da beste legegintzaldi batzuetan eztabaidak intentsoak zirela, eta prentsan ere bai. Hortik haratago, hartu-emana korrektoa zen. Gertatzen dena da bitarte horretan legegintzaldi bat egon dela. Lau urte horietan, bai EH Bilduk eta baita Abadiño Independenten Berriak taldeko kideek ere gauza batzuetan bat egin dugu.

Zertan zaudete ados?

Ikusten genuen udal gobernuaren dinamika ez zela Abadiño behar zuenaren neurrikoa. Lan egiteko moduan ikusten genuen eraginkortasunerako tartea zegoela, baita erritmo aldetik ere. Gauza asko, nahiz eta dirua izan, ez ziren aurrera irteten. Gobernuan sartu garenean ikusi dugu gainean egonda eta intentsitatea sartuta gauza batzuk lortzen direla. Gobernantza modu horretan hobetzeko gauzak zeudela pentsatzen genuen. Alde horretatik, ikuspuntu antzekoa genuen. Bestalde, herritarrentzat positiboa den beste gai bat herri kohesioa da. Auzoen idiosinkrasia honetan, pentsatzen dugu ibilbide ezberdinak dituzten talde bi elka-

rregaz lanean egoteak aurrerapauso interesgarriak ematea ekarri dezakeela.

Deigarri gertatu da Jose Luis Navarrok hirigintza arloa hartzea.

Berba egiten duzunean udala zelan kudeatu, ardurak banatu egin behar dira. Ikusi genuen bakoitzak non egin zezakeen bere ekarpena jakituriaren eta esperientziaren arabera. Horixe izan zen ikuspuntu bat batzorde eta ardurak banatzerako orduan. Dena dela, gero talde bakoitzak gauza batzuei ematen die garrantzia. Navaroren hasierako legegintzaldian, Matienan transformazio urbanistiko bat gertatu zen. Ikusten dugu gaur egun hainbat lekutan eman beharko lirakekeela berri-tze horiek. Eta uste dugu Navarrok izan dezakeen esperientzia hori baliagarria izan daitekeela. Oraingoan, landu ditugun gaietan ados egon gara. Koalizioa egiterakoan, normala da errepresentazio txikiagoa duenari aukera ematea bere ideiak erakusarazteko.

Zeintzuk dira gobernu taldearen irizpide nagusiak legegintzaldi honetarako?

Guk lan ildoak buruz berba egiten dugu. Garrantzitsu ikusten dugu udalaren funtzionamendua bera hobetzea. Antolamendua era eraginkorragoan egin eta koordinazioa areagotu sailen artean. Pertsonal mailan, lantaldean hobekuntzak egiteko beharrezana

ikusten dugu. Era berean, legegintzaldi eta komunikazio plan bat egiten ari gara eta oposizio taldeak parte hartzea gonbidatu ditugu. Komisioen osaketan, batzorderen baten gidaritza hartzea proposatu diogu oposizioari. Parte hartze batzordea ere sortu gura dugu herritarrekin dugun hartu-emana indartzeko.

Proiektu zehatzei degokienez, zer aurreikusten duzue?

Herrian mugikortasunagaz ditugun arazoak konpondu gura ditugu hainbat auzotan. Zelaian sinadura bilketa bat egin zen peatonalizazioa berraztertzeke, eta urrian ekingo diogu gai horri. Enpresa biren lana uztartuko dugu. Bata aditua da mugikortasunean, eta bestea prozesu parte hartzaileetan. Horrela, herritarren artean prozesu parte hartzaile bat martxan ipini gura dugu eta Gabonetarako denon artean erabakita izatea espero dugu. Peatonalizazio eredu berraztertzea da asmoa.

Mugikortasunagaz lotuta, aparkalekuarena da beste arazoetariko bat.

Adibidez, argi daukagu legegintzaldi honetako erronketariko bat Matienan aparkalekuagaz dagoen arazo konpontzea dela. Muntzaratzen kasuan, dagoeneko diseinatuta dago proposamen bat mugikortasunari eta aparkalekuari begira, eta uste dut legegintzaldiko lehenengo zatian gauzatu ahal izango dela. Bestalde, Matienan mugikortasun plan bat egingo dugu zirkulazioa berraztertzeke.

Enpresa juridiko batek aztertzen ari gara, igerilekuetako instalazioak geratu diren egoeran, epaitegietara jo edo ez

Zein iritzi duzu Arrankurriko nagusien egoitzari buruz?

Kokapenagaz ez gaude ados. Alundian araudi aldaketa bat egon zen eta horren eraginez Elorrioko eta Durangoko egoitzetan mol-daketak egin zituzten espazioak handitzeko, eta plazak galduz. Plaza gehiago izateko, egoitza berria zein herritan egin zitekeen begira egon ziren. Next Generation diru funtsako diru laguntza jasotzeko, 2026rako eraikita egon beharko litzateke. Urgentzia horregaz ikusi zuten 1989ko arau subsidiarioetan bazegoela eremu soziosanitario bat Abadiño, Arrankurri. Beraz, ez da lekuri egokiena. Berez, askoz ere hobeto izango zen herrian



Gogoratu behar dugu Mankomunitateak oinarrizko gizarte zerbitzuak lantzen dituela. Beste esperientzia batzuk ikusi ditugu Usurbilen eta Hernanin, bakardadari aurre egiteko: proiektu intergenerazionalak, zaintza komunitarioa... esate baterako.

Kultur arloan zein lan ildo ezarri dituzue?

Kultura ezberdinetako jendea bizi da Abadiñon eta kultur plan batez herritarren arteko elkar-ekintza hori sustatzea gura dugu. Gainera, aisialdiari lotuta, ludotekagaz eta gaztelekuagaz eraginkorrak izan gura dugu.

Etxebizitza arloan zeintzuk dira Abadiñoren erronkak?

Baditugu udalaren jabetzakoak diren lursailak etxebizitza publikoak egiteko. Laster garatuko den sektore batean, Zelaietatik Muntzaratzera joanda, udalak aprobetxamenduan dituen hainbat etxebizitza bereganatuko ditu. Aukera izango dugu anbiziotsuak izateko etxebizitza politiketan.

Zelan topatu duzue igerilekuen egoera eta kudeaketa eredia?

Obra egin zuten igerilekuaren teiltatu berrian eta abar. Baina, aldi berean, beste instalazio batzuk ez dira berriztu hiru urteko geldialdi honetan. Aldageletan sartu ginen eta berrikuntza batzuk egin genituen. Baina sotoan de-

purazio sistema zahartuta dago eta pare bat urtean 400.0000 euroko inbertsio bat egin beharko da. Orain arte Emtesportek gestio integrala eraman du, eta orain, urritik, enpresa berriak zerbitzuak ematen ditu. Kudeaketa eredia aldatu egin da. Trantsizio horretan auditoria sakonago bat egin zen. Defizientziak agertu ziren, baita depurazio sistemarena ere. Beste enpresak kudeaketa integrala zuenez, ez zuen hobekuntza askorik egin, eta horren eraginez egoera honetan jaso ditugu instalazioak. Beraz, orain enpresa juridiko batez aztertzen ari gara, igerilekuetako instalazioak gelditu diren egoeran, euren neglijentziari zer inputatu ahal zaioan, epaitegietara joan edo ez erabakitzeke. Izan ere, diru asko joan da horretara.

IBla jaistea proposatu zenuten. Zer gertatuko da orain?

Aurten kobratuko dena iazko urrian onartu zuen aurreko gobernuak. Guk erabakitzen dugunak 2024ko urriko fakturan eragingo du. Gure proposamena da etxebizitzaren IBla jaistea eta balio katastral handia duten industrietan apur bat igotzea. Bildutako dirua era beretsuan aurrekusten dugu. Bestalde, prezio publikoetan, beste herri batzuetan legez, etxebizitzetako bizikide eta sa-

rreren arabera prezioak ipini gura ditugu, egora ekonomikoa ez dadin muga bat izan, adibidez igerilekuen kuotetan.

Zelan dago pediatria zerbitzua Abadiñon? Udalak zer egin dezake zerbitzu hori hobetzeko?

Abadiño beste herri batzuekin unitate berean antolatzen da. Herri horietan lau pediatria egoitea aurrekusten da. Matienako plaza ez dago egonkortuta. Lehen, hiru pediatria zeuden eta egoera hobetu egin da, baina, hala ere, bajak ez dira kubritzen. Unitate horren arduradunagaz batzartu ginen eta esan zigun Osakidetzak asmoa duela Matienako pediatria plaza egonkortzeko; beraz, hori horrela bada oso positiboa izango litzateke. Batzar horretan bertan, Zelaietako osasun zentroa Txanportako atzealdera lekualdatzea mahai-gaineratu genuen. Aurreko legegintzaldian, proiektua ez aurrera ez atzera geratu zen. Laster izango dugu bilera bat, obra hori egin ahal izateko. Medikuek ez dute leku fisikorik, espazioak partekatu egiten dituztelako. Fitxa berri guztiak Matienara bideratzen dira, leku faltagaitik. Esan digute nahiko urgentea dela beharizan horri erantzutea, eta legegintzaldi honetan erantzun bat ematea espero dugu.

integratuago egotea, eguneko bitzitan interakzio sozial gehiago izateko.

Badago margenik hori aldatzeko?

Ez. Planteatu genuen Abadiño-bisko inguruan egin zitekeela. Esan digute dagoeneko hasi direla Arrankurriko proiektuagaz. Gure kezka adierazi genien, esanez Arrankurri %5eko aldatsa dagoela eta gatxa dela gurgildun aulkiagaz han ibiltzea. Bestalde, kudeaketa publikoa izatea eskatu dugu.

Erronka demografikoa udalaren agendan dago?

Biztanleria geroago eta nagusiagoa da. Ildo horretatik, garrantzia eman gura diogu adin batetik aurrerako herritarren zerbitzuen hobekuntzari. Orain arte ongizate zerbitzua Mankomunitateak eraman du. Uste dugu zerbitzu horretatik haratago joan behar dugula, eta gobernu taldeak uste du inplikazio gehiago eta baliabide gehiago bideratu behar ditugula gai hori lantzeko.

WWW.MANGAMORE.EUS

MANGAMORE

AMOREBIETA-ETXANOKO JAPONIAR KULTURAREN JARDUNALDIAK

URRIAK 13-14-15

Amorebieta etxano UDALA AYUNTAMIENTO

Bizkaia euskara eta kultura saila

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Joan zen asteen, San Fausto auzo elkarteko kideak Kapitanena baserriaren geroaz galdetzeraz joan ziren Durangoko agintarien aurrera. Kapitanenan auzo etxea egiteko proiektuak lizitaziora noiz irtengo duen galdetu zuten. Mireia Elkororibe alkateak denbora eskatu zien. "Udalaren egungo egoera ekonomikoak" behartuta, proiektu bakoitza "tentuz aztertu eta lehenetsi" gura dute. Edozelan ere, udalak argitu du ez daukala zentro zibikoa geldiarazteko asmorik.

Auzo etxearen geroaz galdetzeraz joan zarete agintarien aurrera.

Juan Luis Madariaga: Bai. Kapitanenan auzo etxea egiteko diru partida joan zen martxotik dago onartuta. Proiektua lehiaketa publikora ateratzea baino ez da falta. Eta behin lizitazioa eginda, obrak hastea. Hori dela eta, plenora joatea erabaki genuen, proiektuagaz zer gertatuko den galdetzeraz.

Gorka Pérez: Bai. Izan ere, proiektu batera bideraturiko diru partida urtebetean gauzatzen ez bada, partida hori beste urtebetez luzatzeko edo altxortegira bueltatzeko arriskua dago. Eta guk ez dugu horrelakorik gura. Proiektua lizitaziora ateratzea eta gauzatzea gura dugu.

Auzoko egunerokotasunari dagokionez, zein arlotan ikusten duzue zentro zibiko baten beharrezana?

G.P.: Faustegoiako etxebizitza berrietara gazteria etorri den arren, ezin dugu ahaztu auzo hau, orokorrean, adin batekoa dela. Jende nagusi asko bizi da. Eta auzo etxeak

"Kapitanenan gizarte etxea egitea onuragarria izango da auzoarentzat"

San Faustoko auzo elkarteko kideek eta bertako bizilagunek itxaropenez begiratzen diote Kapitaneneko proiektuari



aukera bat eskainiko die nagusienei, podologia, gimnasia edo osasun kontsulta bat herriko erdigunera joan barik egiteko. Umeei dagokionez, berdin. Etxeak ikasketak gela bat eskainiko du, umeak batzeko leku bat. Azken finean,

auzoarentzat onuragarria izango den proiektu bat da zentro zibikoa. Eta hau ez diogu guk bakarrik. Gogoan dut orain 8-10 urte, sasoi hartako gobernu taldeak zentro zibiko erraldoi bat egiteko proiektua zuela mahai gainean. Horrek erakusten

du bere garaian beharrezan bat identifikatu zutela. Udal eraikin bat dela kontuan hartuta, goazen erabilera bat ematera.

San Fausto asko dabil hazten. Etxe berri ugari egin dute. Zelakoa da koherentsia eta auzo bizitza hemen?

G.P.: Faustegoiako etxe berrietara eskualdeko herri askotako jendea etorri da bizitzera. Hasieran ez ziren auzora jaisten. Baina orain bai, hasi dira etortzen. Denboragaz, askok ikusi dute posible dela auzoan sartzea, auzotarrekin nahastea. Horrez gainera, kontuan hartu behar da auzo asko haziko dela laster. Laminazio fabrika zegoen eremuan etxe ugari egingo dute, auzoaren goialdeko partean ere etxebizitza gehiago egingo dute. Auzo hazten dabil, jende gehiago egongo da. Horrenbestez, Kapitanenaren moduko proiektuak denontzat izango dira onuragarri.

Juan Jesus Díez: Bai. Gainera kontuan hartu behar da San Fausto, udalerriaren osotasunari begiratu-ta, biztanleria dentsitate handienetarikoa bat duen eremua dela.

Herriko jai nagusiak ate joka datoz. Zelan biziko dituzue?

G.P.: Bai, jaiak topera biziko ditugu, bai gozamenari dagokionez eta baita lanari dagokionez ere. Jendea auzoan batzea gura dugu. Hemen antolatuko ditugun ekintzekin gozatu dezaten gura dugu. Patxikotxuren kalejira, paella txapelketa, txokolatada, umeentzako jolasak, ... arrakastatsuak izango direlakoan gaude.

Birjinosteko lanak amaiturikoan, Larrasoloeta kalean biribilgune txiki bat ipiniko dute trafikoa berrantolatzeko

Kokagune zehatza Larrasoloetak eta Santasusanostek bat egiten duten puntua izango da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak aldaketa puntual bat egingo du arau subsidiarioetan Larrasoloeta inguruko trafikoa berrantolatu ahal izateko. Esku hartze horri eskerrak, biribilgune txiki bat ipiniko dute

Larrasoloetak eta Santasusanostek bat egiten duten lekuan. Horretarako, baina, Birjinoeren urbanizazioa amaitu beharko dute lehenengo. Hasierako proiektuak ONA enpresaren eraikin zaharra botatzea eta bertan errotonda

handi bat egitea aurreikusten zuen. Baina horrek "kostu ekonomiko eta sozial handia" eta "kutsadura" eragingo dituela iritzita, udalak proiektua aldatzea eta biribilgune txikiago bat egitea erabaki du.



Ingurua atontzeko lanak direla eta, Larrasoloeta kaleak honako itxura hau du gaur egun.

anboto

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko urriaren 6a
21. urtea - 951. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Nagusien Topaketak 1.300 lagun batu ditu Landakon

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 230 gizarte zentrotako kideek ekitaldi jendetsua egin zuten joan zen domekan

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Ekitaldian Iñigo Urkullu lehen-dakaria, Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Mireia Elkororibe Durangoko alkatea eta Felix Elkororibe EuskoFederpen elkarteko presidentea izan ziren. Jardunaldian zehar, Urkulluk azpimarratu zuen garrantzitsua dela "adineko pertsonen euskal gizartean jokatu duten eta betetzen jarraitzen duten papera aitortzea eta baloratzea". "Gure gurasoek gaur egun ezagutzen

dugun Euskadi eraiki zuten. Gure betebeharra da ondare hori ohoratzea", esan zuen. Felix Elkororibe EuskoFederpeneko presidentea nabarmendu zuenez, aurrera egiteko "sinetsi" egin behar da. "Guk proiektu honetan sinetsi dugu, ekitaldi hau sortu dugu eta horregaz batera hazi gara", esan zuen. Mireia Elkororibe alkateak eskerrak eman zizkien Durangoko Bizidun eta Izar Gaztea elkar-tei ekitaldiaren antolakuntzan izandako inplikazioagaitik eta "egindako lan handiagaitik".



Domekako ekitaldiko argazki bat. DURANGOKO UDALA

Txibitenako skate parkeko hormak margotu dituzte

Bertan egin daitezkeen pintaketak saihestu gura dituzte

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak Txibitenako skate parkeko zenbait horma margotu ditu. Erabiltzaileek euren halantxik eskatuta txukundu dituzte hormak. Lehenagoko pintaketak estalita, udalak aurrerago

egin daitezkeenak murriztu edo saihestu gura ditu. Margoketa lanek 7.126 euroko kostua izan dute. Bestalde, udalak jakinarazi du azken asteotako euriteek skate parkean sortu dituzten putzuak eta arazoak konponduta daudela.



Txibitenako skate parkearen inguruko hormak.

Urgozo kiroldegia eraikitze lanek 20 bat hilabete iraungo dute

Udalak azaldu du kiroldegi berriak instalazio "zabalak, modernoak eta iraunkorrak" izango dituela. Kirol jardueretara mugatu barik, "ekitaldi soziokulturalak" ere egin gura dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzak kiroldegi berria izango du laster: Urgozo. Joan zen astean hasi ziren azpiegitura eraikitzen, eta aurreikuspenen arabera obrak 20 hilabeteren buruan egongo dira amaituta. Zornotzako Udalak azaldu duenez, "erreferentziako zentroa" izango da, "kirola eta

estalpeko jarduerak" egitea ahalbidetuko duena. Alde horretatik, gune berria herriko kirol klubei eta ikastetxeei zuzenduta egongo da, baina "ekitaldi kultural eta sozioekonomikoak" egitea ere ahalbidetuko du, hala nola "kontzertuak eta azokak". Kiroldegi berriak 3.574 metro karratu izango ditu.

Obrek 6.504.503 euroko aurrekontua dute. Martxoan, Zornotzako EH Bilduk helegitea ipini zuen proiektuaren kontra, "ustezko irregulartasunak" zirela eta. Baina uztailan Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO) ezetsi egin zuen helegitea.



Joan zen astean hasi ziren obrak egiten.

Zornotzako mugikortasun egunean 200 herritarrek parte hartu dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak "balorazio positiboa" egin du irailaren 21ean Zelaieta Parkean egindako Mugikortasun Egunean harira. Herritarrek mugikortasun iraunkorragazko duten konpromisoa eta sentsibilitatea azpimarratu ditu udalak. "Jardunaldi aktiboa izan zen eta parte hartze zabala izan zuen; izan ere, 200 bat zornotzarrek bat egin zuten eta programaturiko jardueraz gozatu zuten, guztiak ere helburu beragaz: mugikortasun iraunkorrari buruz sentsibilizatzea eta kontzientziatzea", azaldu du udalak.

Zelaieta parkearen bueltan baturikoez bizikletak konpontzeko tailerra, zazpi eserlekuko bizikleta ibilaldia, txapak sortzeko tailerra eta hiri-bizikleten erakusketa izan zituzten eskuragarri. Horrez gainera, ikasleek mugikortasunaren gaia landu zuten Zornotzako ikastetxeetan.

Datorren urtean %3 igoko dituzte Zornotzako zergak eta tasak

Kopuruak izoztuta egon dira azken hiru urteotan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak zergak, tasak eta prezio publikoak eguneratzea erabaki du. Datorren urtetik aurrera, orain arteko kopuruek %3 egingo dute gora. Edozelan ere, udal iturriek azaldu dutenez, Kontsumorako Prezioen Indizeak (KPI) markaturiko kopuruaren azpitik egingo dute eguneraketa. Ainhoa Salterain alkateak azaldu du ordenantza fiskalak "modu arduratsuan" eguneratu dituztela, "udalaren finantza-beharrizanen arteko oreka lehenetsita eta herri-

tarrentzat eta tokiko enpresentzat mesedegarria den ingurune fiskala mantenduta". Araudi berrituan hainbat hobari edo deskontu jaso dute. Horien artean daude familia ugari zuzendurikoak eta ibilgailu historikoei begirakoak.

Bestalde, udalak Eraikuntza, Instalazio eta Obren eta Ondasun Higiezinaren gaineko zergak (IBI) aldatu ditu. Moldaketa horren helburua "energia berriztagarrien erabilera eta beste ekimen jasangarri batzuk sustatzea" dela azaldu du udalak.



Zornotzako udaletxean egindako osoko bilkura bat.



Txinurrisolo kaleko argazkia.

Txinurrisolo eta Trañabarren kaleak berrurbanizatuko dituzte Abadiñon

Proiektua lehiaketa publikora atera aurretik, gobernu taldea bizilagunekin batuko da

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean egindako osoko bilkuran, Txinurrisolo kalea berrurbanizatzeko proiektuari Trañabarren kalekoa ere gehitzea onartu zuten. Eta, horretarako, aurrekontuari 96.969 euro gehitzea onartu zuten. "Oso jarduketa garrantzitsua da inguruko bizilagunentzat. Proiektua geldirik zegoen, eta aktibatu egin dugu", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

Prensa ohar bidez esan dutenez, gobernu talde berriak berriro ekin dio Txinurrisoloko urbaniza-

zio proiektuari, eta hainbat aldaketa egin diote hasierako proiektuari. Urbanizazio proiektua dela eta, Txinurrisolo kalea desnibelik bako gunea bihurtuko da, hau da, plataforma bakarra egongo da. Horri eskerrak, kale horretako hainbat ataritan igogailuak instalatu ahal izango dituzte. Berrurbanizazioa lehiaketa publikora atera aurretik, gobernu taldea bizilagunekin batuko da. "Deitu egingo diegu herritarrei, obraren xehetasunak azaltzeko", gehitu du Jose Luis Navarro Hirigintza zinegotziak.

Kale horrez gainera, Trañabarren kaleko tarte batean ere egingo dituzte lanak; Laboral Kutxatik BBKraino, hain zuzen ere. Gune hori ere plataforma bakarreko eremu bihurtuko da eta egungo taxi-geltokia aurreko espaloiara aldatuko dute. Horrela, Mesoi tabernaren eta bazarraren pareko espaloia handiagoa izango da.

Bestalde, Txinurrisolo kaletik Atsegin tabernaren espaloiraino oinezkoentzako igarobide berri bat egokituko dute, besteak beste.

Herritarren parte-hartzea eta proiektu estrategikoak martxan ipintzen Abadiñon

Gobernu taldetik azaldu dutenez, azaroan aurkeztuko dute Legegintzaldi Plana



Jose Luis Navarro, Edurne Maguregi, Mikel Urrutia eta Naiara Bildosola.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak legegintzaldi hasierako 100 egunen balorazioa egin du aste honetan. Bertan, Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak talde bien (EH Bildu eta Abadiñoko Independente Berriak) arteko elkarlana azpimarratu du, baita parte hartzea sustatzeko zabaldu dituzten bide berriak ere. "Alde guztiak kontuan hartuta, hobeto joango zaio Abadiñori eta helburu horregaz gabil-tza lanean. Hasi besterik ez gara egin, baina ilusioa eta lan egiteko gogoa ditugu", dio Urrutiak. Bestalde, Edurne Maguregi alkateordeak esan du Abadiñok "udazken bizia" duela aurretik. "Azaroan aurkeztuko dugun Legegintzaldi Planagaz bat etorrira, 2024ko aurrekontuak egingo ditugu", gaineratu du.

Elorrioren zabalik dago Berdintasun Ordenantzari ekarpenak egiteko epea

Urriaren 17an bilera egingo dute herriko emakumeekin, dokumentua azaltzeko eta ekarpenak jasotzeko



Elorrioko kale bateko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriarrek zabalik dute epea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko ordenantzari ekarpenak egiteko. Ordenantzaren edukiak Elorrioren emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea du helburu. Ordenantzaren lehenengo zirriborroa Elorrioko Udaleko Berdintasun Saileko kideek egin dute.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, udal dinamikan zein herriko bizimoduan eragin handia izango duen edukia dago dokumentuan. "Horregaitik,

garrantzitsua da erakundeen eta gizarte zibilaren arten ikuspegi partekatua izatea zelan jokatu behar den jakiteko", azaldu dute udaletik.

Bestalde, Berdintasun Sailak dokumentuaren edukia arretaz irakurtzera eta aztertzeraz animatu ditu elorriarrak. Era berean, aurrez aurreko saio batera gonbidatu ditu herriko emakumeak. Saioa urriaren 17an izango da, 18:00etatik 20:00etara, Iturri Kultur Etxean. Bertaratzen direnek euren ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Elorrioko kiroldegiko eskalada gune berria zabalik dago dagoeneko

Aurrekontu parte hartzaileetatik irtendako proiektua da



Elorrioko kiroldegiko squash aretoan egin dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskalada gunea squash aretoetarikoa batean eraiki dute. 132 m2 eskalagarri ditu eta erabiltzaile guztien beharrak asetzeko diseinatu dela jakinarazi dute udaletik.

Proiektua iazko aurrekontu parte hartzaileetako proiekturik bozkatuena izan zen. Ildo beretik, aurtengo aurrekontu parte hartzaileen bozketa fasea oraindino martxan da.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



"Ez nintzen bat-batean joan zezenarengana, inork ere ez daki-eta zezen batek zelan erreakzionatuko duen!"

Juan Luis Irazola abeltzaina susto handi batetik errekuperatzen dabil. Joan zen domekan, zezen batek adarkada bat eman zion izartean. Une estuak bizi izan zituen. Ospitalera eraman zuten segituan eta, zorionez, ebakuntza ondo irten zen

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Domeka arratsaldean ezbehar bat gertatu zitzaion Juan Luis Irazola (Atxondo, Mallabian bizi da, 1961) abeltzainari. Gernikan izan zen, Pirinioetako arrazako ganaduaren Euskal Herriko txapelketan. 1.000 kilotik gorako zezen bat pista ateratzera zihoala, oldartu egin zitzaion eta izartean adarkatu zuen.

Markinako abeltzain gazte baten zezena atera nahi nuen pista. "Bera bajan dago eta neuk aterako niola esan nion. Soka hartu nuen, zezenak buelta hartu zuen eta neugana zuzendu zen bete-betean", gogoratu du Irazolak.

Tibia eta perone hezurren inguruan eman zion adarkada bat, baina kolpe bat bakarrik izan zen. Adarkadarik larriena ezkerreko izartean jaso zuen. "Zauria ikusi eta segituan eskuak bertan jarri nituen, bultza eginez". Zorionez inguruan zeuden lagunek arin eta egoki erantzun zuten. "Lagun bik torniketeak egin zizkidaten; batek gerriko batekin eta besteak soka batekin. Anbulantziako medikuek esan zuten torniketeak oso ondo eginda zeudela. Eskerrak torniketei, bestela... Zorionez ez zidan arteria nagusia harrapatu, bestela askoz okerra-



Juan Luis Irazola Mallabian, arxiboko irudi batean.

goa izango zen, dudarik barik. Espero baino odol gutxiago galdu nuela esan zidaten medikuek", azaldu du.

Segituan ospitalera eraman eta ebakuntza egin zioten. Ebakuntza ondo irten zen eta astelehenean bertan ospitaleko gela batera eraman zuten. Gaur bertan etxera joan daiteke errekuperazioarekin jarraituzera.

1.000 kilotik gorako zezena

Irazola adarkatu zuena ez da edozelako animalia. Bost urte inguru eta 1.000 kilotik gora ditu. Horrelako lehiaketa batera zeramaten lehengo aldia zen eta beharbada horrek esplikatzen du bere portaera oldarkorra. Horixe uste du, behintzat, Irazolak. "Azoketan egondakoa da, baina azoka bateko giroa eta Gernikako txapelketakoa diferentiek

dira. Beste giro bat dago: musika, zarata, jendea... Hurrengo goizean ugazabak zezena etxera eraman zuenean oso mantso zegoela zioen, baina une hartan... Ez nintzen bat-batean joan zezenarengana. Aurretik beragaz egon nintzen apur batean: lepoa laztandu nion, berba egin... Baina zezen batek zelan erreakzionatuko duen inork ez daki eta!"

Mallabitarrok Egina irteeran, musika eta musikariak izango dira protagonista zapatuan

MALLABIA • J.D.

Berbalagunen barruko Malla-bitarrok Egina ekimenak berderatzigarren irteera egingo du zapatu honetan, Kaltxango AEK euskaltegiak eta Mallabiko Udalak sustatuta. 'Mallabia musika ere bada' izena ipini diote irteerari, eta parte hartzaileak herriko musikan murgilduko dira.

10:00etan ipini dute ordua, herriko plazan. Txangoa elizan hasiko dute, eta bertako orga-

Biharko irteeran elizako organoa eta musikariak ezagutzeko aukera egongo da, besteak beste

noa eta musikariak ezagutuko dituzte. Ondoren, zurrutokian hamaiketako egingo dute, herriko abesbatzei buruzko azalpenak jasotzen dituzten bitartean. Segidan, herriko rock musikariak ezagutuko dituzte eta, musika lagun hartuta, herriko ibiliko dira. Amaitzeko, Trabaku goikoan bazkari autogestionatu eta musikatu egingo dute.

Izen ematea 663 070 492 telefonoko whatsappen egin daiteke. Kultur Etxean izena emateko epea gaur amaitzen da.

Izurtzan klown ikastaroa hasiko da urriaren 24an, Korrala sormen gunean

IZURTZA • J.D.

Ganso&Cia konpainiak hainbat ikastaro eta berbaldi antolatuta du aurtengo ikasturteari begira. *Disfrutando del ridículo* izeneko klown ikastaroagaz ekingo diote egutegiari. Urriaren 24an hasi eta abenduaren 12an amaituko da, eta antzerki konpainiako Cecilia Paganinik martitzenero emango ditu klaseak, 18:30etik 20:30era. Ikastaroaren prezioa 100 euro da eta Izurtzako eta Mañariko bizilagunek deskontuak izango dituzte. Hasiberrientzat ere aproposa dela eta aurretik esperientzia izatea ez dela beharrezkoa azaldu dute antolatzaileek. Ekimenari buruzko informazio gehiago korrala@ganso.info helbidean eskuratu daiteke.

Hontza Museoko 'Kabiak eta Arrautzak' erakusketa urria amaitu arte luzatu dute

Azarotik aurrera erakusketa berri bat inauguratuko dute



Museoko sarreran, beira-arsa banatan daude arrautzak eta habiak. HONTZA MUSEOA

MAÑARIA • J.D.

Hontza Museoko 'Kabiak eta Arrautzak' erakusketa abuztuan amaitzekoa zen, baina antolatzaileek urria amaitu arte luzatzea erabaki dute. Ondoren, azarotik aurrera, aldi baterako erakusketa berri bat inauguratuko dute, Aste Santura arte iraungo duena, gutxi gorabehera.

Museoko sarreran mantenduko duten erakusketa hegazti autoktonoak nahiz exotikoen habiak eta arrautzak daude. Erakusketa arrautzarik handiena ostrukarena da. Tamainari dagokionez, emu eta ñandu hegaztien arrautzak datoz hurrengo. Azken hegazti bi hauek Australiakoak eta Hegoamerikakoak dira jatorriz, hurrenez hurren. Eta arrautzarik txikiak Javako (Indonesiako irla bat) txolarrak batenak eta kanario batenak dira. Tamainan ez ezik koloreetan ere aniztasuna dago arrautzetan. Habiei dagokienez, karnaba, behar-txori, kolibri eta zozo espeziako hegaztienak batu dituzte, besteak beste.

Txitxiburduntziaren historia aztergai, Otxandioko berbaldi, kantaldi eta dastatzean

OTXANDIO • J.D.

Ondare Jardunaldien barruan, berbaldia, kantaldia eta dastatzea uztartuko dituen 'Akelarretik Txitxiburduntzira' ekimena antolatu dute Gerediaga Elkarteak eta Otxandioko Udalak. Urriaren 14an izango da, 12:00etan, Mekoletako Arkotxe Kultur Elkartearen Bittor Kapanaga euskaltzaleak euskaldunen erlijio zahararen barruan txitxiburduntziaren jatorria azaldu zuen, eta, kristautasuna sartu zenean, zelan ohitura paganotzat hartu eta beste esangura bat eman zioten, Akelarre deituta. Soinubil elkarteko lagunekin batera, teoria hori ezagutu eta Kapanagaren abesti batzuk kantatuko dituzte. Izen ematea ondareabizkaia.eus webgunean egin daiteke.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak




Anbotokideen txokoa

URRIKO ZOZKETAK



Imanol oroituz ikuskizunerako sarrera bikoitza. Urriaren 15ean, San Agustinen.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

'Anbotoko Mari!' ikuskizuna San Agustinen: Ander Unzueta Ibarra
Jatordua Uxarten: Mertxe Ariznabarreta Unzalu

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Egonkortze lanak Zaldibarko zabortegian. IREKIA

Zaldibarko zabortegia egonkortzeko lanak Jaurlaritzak egingo ditu, modu subsidiarioan

Zabortegia zigilatze eta iragazgaitz egiteko lanak izango dira. Enpresari zigor espedientea zabalduko diote, "administrazioak egindako errekerimenduak bete ez dituelako"

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du Zaldibarko zabortegia egonkortzeko ardura. Modu subsidiarioan egingo du, berez Verter Recycling enpresari dagokiolako azpiegitura zigilatze eta mantentze lanak egiteko ardura. Baina enpresak ez die Jaurlaritzak egindako errekerimenduei erantzun, eta, horrenbestez, administrazio publikoak hartuko du lanok egiteko ardura. Erabakia zabortegiaren egonkortasun azterketaren emaitzak jakindakoan hartu dute. Izan ere, "epe luzean esku hartzerik egiten ez bada, zabortegiko

egonkortasuna arriskuan" egon daitekeela egiaztatu du Jaurlaritzak. "Egungo baldintza lehorrek ez dakarte berehalako arazorik, baina zabortegia denbora luzean orain dagoen moduan uztea ez da bideragarria, arriskua egon daitekeelako", esan du Arantxa Tapia Ingurumen sailburuak.

Arrisku egoera horren sortzailetariko bat euria izan daitekeela eta, Jaurlaritzak lamina bat ipiniko du zabortegian, euri urak iragaztea ekiditeko. Lurrak trinkotzeko lanekin batera, horixe izango da egingo duten lehen esku hartzea. Horregaz, honda-

kindegiaren egoera "nabarmen" hobetuko dela adierazi dute. Lamina ipintzeko lanek 750.000 euroko inbertsioa ekarriko dute. Bi-hiru hileko epean instalatuta egotea gura dute. "Ez da behin betiko zigilatuko, baina bada instalazioaren segurtasuna eta ingurumenaren babesa berma dezakeen irtenbide bat", esan du Tapiak.

Bestalde, Jaurlaritzak zigor espedientea zabalduko dio Verter Recycling enpresari, "administrazioak behin eta berriro egindako errekerimenduak bete ez dituelako".

Amaraune Mendi Kirol Elkartearen erronka azaroaren 26an amaituko da

Mendi kirol elkarteak eta Berrizko Udalak martxoan aurkeztu zuten erronka, kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko asmoagaz; Amarauneren trail taldea aurkeztu dute oraintsu

BERRIZ • A. M.

Azaroaren 26an amaituko da Berrizko Amaraune Mendi Kirol elkarteak eta udalak martxoan ipiniriko Umeentzako Mendi Erronka. Kirola sustatzeko asmoagaz antolatu dute eta maila bitan banatu dute. 9 urtetik beherakoentzat erronka bost menditako gailurrera heltzea da; 9tik 16 urtera bitartekoek zortzi gailurretara heldu beharko dute. Bestalde, Amaraune Trail Taldea aurkeztu dute. 25 gazte berriztarrek osatzen dute taldea. "Taldea denok ezagutzen dugu elkar, eta elkartasuna handitzea eta inguru berriak ezagutzuz mendiaz ahalik eta gehien disfrutatzea da gure helburua", azaldu dute.



Trail taldearen aurkezpena.

Lurretako enpresa proiektuen lehiaketan parte hartu daiteke urriaren 31ra arte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Lurretako enpresa proiektuen lehiaketa antolatu du udalak. Iniziatiba ekintzailea sustatu gura dute eta herrigunean euren enpresa edo komertzioa sortuz lan egitea erabakitzen dutenei "bidea erraztu". Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke proiektuak, eta irabazleak 6.000 euro lortuko ditu.

Idea lehiaketak herrigunean "izpiritu ekintzailea" sustatzea du helburu, "Lurretako etorkizun komertziala bere inguruan garatzen diren ideia berritzaileetan oinarritu ahal izateko". Proiektuek herriaren errealitatea kontuan izan beharko dute eta herrigunera mugatu behar dira. Sarituri-koari laguntzaren %20 emango zaio udalak jarduera hasi dela jakitean, eta beste %50 jarduera garatzeko behar diren neurri zuzentzaileak aplikatu direla jakitean. Azken zatia jarduera hasi eta urtebeteko epean jasoko du.

Nagusien bazkariak 46 bazkaltiar batu ditu Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Argi dago sanmigelak inon ospetsuak badira, horiek Lurretan direna. Baina argi dago ospakizun txikiagoek ere xarma handia izan dezaketen. Garaiko nagusien elkarteko kideek ondotxo dakite hori. Elkarteari izena ematen dion San Migelen omenez, aste kulturala izan dute egunotan. Ekintza ugari batu dute egitarauan: mus, tute eta briska txapelketak, eta San Migel eguneko afari-merienda. Aste Kulturalaren amaiera ere behar den modukoa izan da. Joan zen zapatuan, elkartekideen bazkaria egin eta kiderik beteranoenak omendu zituzten. Ospakizuna Otea Loran elkartean egin zuten. Guztira, 46 lagun batu ziren. Karta-joko txapelketetako sariak ere bertan banatu zituzten. "Aste kulturala ederto batean ospatu dugu. Oso pozik gaude, giro aparta egon da", azaldu dute nagusien elkartekoek.

Lehengo eta oraingo 100 bat bazkidegaz Erlaunperen 50. urteurrena ospatu dute

Erlaunpeko bazkideak jai giroan batu ziren urteurrenean



Joan zapatuan Arrazolan ateratako argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen zapatuan jai giroa izan zen nagusi Arrazola auzoan. Erlaunpeko bazkideek eta bazkide izandakoek elkartearen 50. urteurrena ospatu zuten. Guztira, 100 bat lagun batu ziren.

11:30ean eman zieten hasiera ekitaldiei, sorrerako kontuak kontatuta. Ondoren, bazkaltzeko batu ziren. "Giro paregabea izan genuen, oso ondo pasatu genuen", azaldu dute antolatzaileek.

Ostalariek eta catering enpresetako beharginak greban hasi dira berriro

DURANGALDEA • E.H.

Bizkaiko ostalaritzako beharginak mobilizazioekin hasi dira berriro, lan hitzarmena berri-tzea eskatzeko. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deitu dute protestetara, euren esanetan 2020tik hona soldatak eguneratu barik daudelako: "Espainiako Estatistika Institutuaren esanetan, kontuak argiak dira: Bizkaian KPIa %16,9 igo da 2020ko urtariletik; hotel, kafetegi eta jatetxeetako prezioen igoera %17,9koa izan da. Eta soldataren igoera %0 izan da", diote. Ostalaritzako patronalari negoziazioak "blokeatzea" egotzi diote. Eguenean egin zuten lehenengo lanuztea, hilaren 4an. Baina negoziazioek fruiturik ematen ez badute, grebek urriaren 11n eta 12an jarraituko dutela esan dute. Egoerak hotel, jatetxe, taberna eta catering zerbitzuak eskaintzeaz arduratzen diren enpresak barneratzen ditu. Bizkaian 25.000 langileri eragiten die egoerak. Euretari 8.000 autonomoak dira.

hamaika

Zure begirada
Gure begirada

Facebook, X, YouTube, Instagram, Spotify icons

Txaber Altube bigarren eta Araitz Katarain hirugarren Mungian

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren saioa domekan izango da, Gernikan, 17:00etan

DURANGALDEA • J.D./M.Z.

Domekan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako udazkeneko faseari ekin zioten, Mungian. Saioan sei bertsolari aritu ziren kantuan, eta tartean Durangaldeko bi zeuden: Txaber Altube abadiñarra eta Araitz Katarain mallabitarra. Saioa Mikel Goirienak irabazi zuen, eta Altubek eta Katarainek bigarren eta hirugarren amaitu zuten, hurrenez hurren.

Beraz, Goiriena zuzenean sailkatu da Santurtziko fina-



Katarain goian, ezkerretik hirugarrena, eta Altube behean, ezkerretik lehenengoa.

laurreko saiora (Aitor Bizkarra abadiñarrak ere kantatuko du finalaurreko horretan). Altubek eta Katarainek puntuazioen zain geratu beharko dute sailkatzen diren jakiteko. Altubek 461,5 puntu eskuratu zituen, eta Katarainek 446.

Gernikan hurrengoa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa Gernikan jokatuko da, domekan, urriak 8, Lizeo antzokian. 17:00etan hasiko da. Bittor Altube abadiñarragaz batera honako hauek arituko dira kantuan: Ibai Amillategi, Iker Garitagoitia, Julen Iburguen-goitia, Mikel Retolaza eta Arkaitz Zipitria.

Itxaro Juaristi abadiñarra izango dute gai jartzaile.

Politikan

Jesica Ruiz Pérez
PSE-EE



Jaiak datoz

Egun gutxi falta zaizkigu aurtengo jaiak hasteko. Dakizuenez, aurtengo txupinero handiak Mugarra triatloikoak izango dira eta txupinero txikiak, berriz, Kurutzia ikastolakoak. Biak ere jai batzordean aukeratuak izan dira.

Aurten segurtasun-neurri berriak ezarri behar izan ditugu urriaren 12ko txupinazo handian eta, horregatik, udal txeko plazaren edukiera mugatu behar izan dugu. Guztira 6.000 pertsona sartu ahal izango dira eta 11:30ean hasiko dira plazarako sarrerak kontrolatzen. Jendeak txupinazoaz goza dezan, pantaila bat jarriko dugu Santa Ana plazan, eta euria eginez gero, berriz, Ezkurdiko eszenatokian. Ikus dezagun nola doan aurten. Txupinazoa lekuz aldatu aurretik aukera hau probatu beharra zegoela uste dugu, baina argi daukagu, lehenengo gauza segurtasuna izan behar dela beti. Aurten gainera, txupinazo inklusiboagoa izan dadin, zeinu-hizkuntzako interprete bat egongo da.

160 jarduera baino gehiagoko programa bat dugu, udaleko teknikarier eta jai batzordeari esker egin daitezkeenak. Haur, gazte, heldu eta nagusientzako jarduerak daude eta Durango auzoetan hainbat ekitaldi egingo dira.

Udalak Durangora datozen pertsona guztiak animatzen ditu ondo pasatzera, baina beti errespetuz eta gure herria zainduz. Jakina, puntu morea eta 24 orduko telefonoa egongo dira. Erasoren bat jasan baduzu edo erasoren bat ikusten baduzu, deitu 747 459 584 telefono zenbakira. Ez dugu eraso sexistarik onartuko eta gogoratu: "BAI" bakarrik da bai.

Durangaldea asteen

Podologia eta ile-apaindegi zerbitzuak "baldintzarik onenetan" ematea eskatu dute

ABADIÑO | Abadiñoko EAJk nagusien podologia eta ile-apaindegi zerbitzuak "balintzarik onenetan" ematea eskatu dio gobernu taldeari. "Aurreko udal gobernu taldea osatu genuenok irtenbide egokia aurkitu genion arazo honi. Podologia eta ile-apaindegi zerbitzuak Traña-Matienako Herritarren Arretarako Zerbitzua ematen den lekura bideratzea pentsatu genuen, eta herritarrei arreta emateko zerbitzua Errotara", azaldu dute EAJtik.

Biziraun elkartearen eskutik, suizidioaren gaia ikusarazteko berbaldia Isiotun

ABADIÑO | Urriaren 10a Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna dela eta, Isiotu Kultur Elkartek berbaldi bat antolatu du Abadiñoko Udalaren laguntzagaz. Biziraun elkarteak Iratxe Etxenike partaidea kultur elkartearen egoitzan izango da, urriaren 10ean, 18:30ean. Etxenikek suizidioaren inguruko berbaldi dibulgatiboa emango du.

Aste honetan hasiko dira Elorrion Goietako ikasketa gela martxan jartzeko lanak

ELORRIO | Aste honetan hasiko dira Goietako ikasketa gela martxan ipintzeko lanak. 217.029 euroko aurrekontua dute eta udalak urtarilerako amaituta egotea aurreikusten du.

Bestalde, jakinarazi dute gazteek parte hartze prozesuan adierazitako beharrianei erantzuteko diseinatu dutela. Liburutegiak duen ordutegia baino zabalagoa izango duela gaineratu dute.



Berrizko futbol taldearen 50. urteurrena ospatzeko abestia sortu du Sei Urtek

BERRIZ | 1973. urtean sortu zuten CD Berriz. Mende Erdiko jarduna ospatzeko, Sei Urte talde berriztarrak abestia eta bideo-klipa grabatu ditu. "Eskerrik asko abesti hau egiteko aukera eman diguzuen guztioi, eta Berrizko jendeak futbolaz gozatu ahal izateko egiten duzuen lan guztiagaitik. Zuei eskainia. Berriz beti aurrera!", azaldu dute sare sozialetan.

Abestia Gaztain estudioetan grabatu dute, Eñaut Gaztañagagaz; bideoa Ibai Elortzak egin du, eta drone bidezko irudiak Iker Garciak hartu ditu.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda


#salduenak



OSO LATZA IZAN DA
Xabier Mendiguren
(Elkar)



POSTAL BAT DESERTUAN
Julen Apella
(Balea Zuria)



CAYO HUESO
Oihane Amantegi
(Elkar)



MIÑAN
Amets Arzallus &
Ibrahima Balde
(Susa)



ALFERRIKAKOAREN
BALIOA
Nuccio Ordine
(Pamiela)

SORMENEZKO IDAZKETA TAILERRA YOLANDA ARRIETAREKIN

Berbekin jolasteko prest bazaude, erdu tailer honetara zure kontakizunak sortzeko baliabideak ezagutzera!

Eguna: Otsailak 5etik Maiatzak 13ra bitartean (astelehenetan)

Ordutegia: 18:00-20:00



+16 urte





Gozatu jaiak
berdintasunean
eta errespetuz!

Erasotua izan bazara edo erasoren bat ikusi baduzu

 **747 459 584**

24 orduko arreta eta eskuhartzerako telefonia



San Faustoak 2023

Urriak 7, zapatua

8:00 Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditikk. Antolatzailea: Errotari Elkarte Mikologikoa

9:00 - 14:00 XIII. Durangoko Azoka ekologikoa Andra Marian. Antolatzailea: Marisatsa elkarte

16:30 Xakeko lagunarteko txapelketa. Landako Gunean. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea

Urriak 8, domeka

11:00 XXIII. Mikologia erakusketaren edizioa, XXII. Argazki Mikologikoen Lehiaketa eta perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XXII. lehiaketa Landako Gunean. Antolatzailea: Errotari Mikologi Elkarte.

11:00 Mañaria errearen garbiketa. Hasiera, Pinondon.

Urriak 9, astelehena

Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera nagusientzat. Izen ematea doan izango da, urriaren 3tik 8ra, adinekoentzat udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira, urriaren 9an. Laguntzailea: Cafés Baqué.

Urriak 11, eguaztena

19:30 Kalejira Santa Anatik txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea

20:00 Txupinazoa Karrika Antzerki Taldearen eskutik. Txosnagunera

21:30 Kontzertuak txosnagunera: Insomnia, Dube, Ezta Ilen eta Nevadah

Urriak 12, eguena

11:00 Kuadrillen elkarretaratzea eta animazioa San Fausto auzoan. Animazioa Jaiak Badatoz!

12:00 Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, **kuadrillen jaitsiera**, Landako Gunetik etorritako Pantxikegaz, udaletxeko plazaraino **Sugarri fanfarreagaz eta Xaibor animazioagaz**

13:00 Pantxike eta Patxikotxuren jaitsiera udaletxeko txupinazoraino

13:00 Txupinazoa udaletxeko plazan. (Zeinu-hizkuntza interpretea egongo da). 2023ko txupineroa: Mugarra Triatloi Taldea

13:30 La Kermés Del Vermú ikuskizuna. Ezkurdin (Eguraldi txarragaz, Jesuitak ikastetxean)

14:30 Arroz beltza eta kalimonstroa, Rugby tabernan. Etxe sorgindua

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea Landako eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian)

17:00 Urban Jaia Ezkurdin: graffiti, break-dance eta beat-box tailerrak eta erakustaldiak. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

18:00 Nudo zirku eta antzerki ikuskizuna, Rojo Telón Circo konpainiagaz. Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

19:00 Festa-poteoa San Fausto auzotik. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

19:00 Nagusientzako dantzaldia La Carroceria taldeagaz. **60ko eta 70eko hamarkadetako kantak** Andra Mariko elizpean

21:00 Tximeletak eta Joselontxos fanfarreen arteko norgehiagoka kaleetatik

21:30 DJ maratoi herrikoia Txosnagunera

22:00 Batukada San Fausto auzotik. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

22:00 Raimundo El Canastero. Ezkurdin

Urriak 13, barikua

7:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

9:30 Durango Irratia Airean! Ezkurdin. Zuzeneko solasaldiak Durangoko udal ordezkarietara eta herritarrekin

11:00 Paella txapelketa San Fausto auzoan. Izen ematea: San Fausto frontoian. 14:00 paellak aurkezteko epea. 14:30 sari banaketa. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

11:00 Meza nagusia San Fausto elizan

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00 - 13:00 Haurrentzako tailerrak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean). Antolatzailea Iñurri Eskaut Taldea.

12:00 Poneyak eta zaldiak Ibaizabal parkean. (Euria bada ez da egingo)

12:00 Ipuina ingelesez 3tik 8 urtera arteko haurrentzat Aurora Abasolo parkean. Antolatzailea: Kids&Us

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Jolasak txosnagunera haur eta familientzat Txosnagunera

12:30 Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa Udaletxeko plazan. Ondoren, Durangoko Dantzariak (Euria bada, Andra Mariko elizpean)

12:30 Paella txapelketa Txosnagunera. 14:00 sari banaketa

13:00 'Jacuzzi' zirku ikuskizuna Nimú taldeagaz Ezkurdiko kioskoan. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

13:30 Durango Kantari, Egundo I taldeagaz Andra Mariko elizpean

16:30 Haur eta familientzako egur jolasak Ezkurdin. (Euria bada, Jesuitak ikastetxean)

17:00 Mañaria errearen jaitsiera Tabiratik. Antolatzailea: Txosna Batzordea

17:00 Txokolatada San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian). Antolatzailea: Centro Social San Fausto

17:30 Haurrentzako jolasak San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian). Antolatzailea: Centro Social San Fausto

18:00 'Bi ipuin' antzezlanaren Tomaxen Abenturak taldeagaz Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

18:30 Dantzaro Eingo taldeagaz Andra Mariko elizpean

18:30 Broken Brothers Brass Band Pinondotik Txosnagunera

19:00 Lindy Hop Swing dantzaldia zuzeneko musikagaz Otamotzena parkean. (Euria bada, Plateruena Kultur Aterpean)

20:00 Festa poteoa San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

21:00 Nebrashka Ezkurdin

22:00 Diskodantza San Fausto auzoan

22:00 Ibil Bedi eta Skabidean. Txosnagunera

23:00 En Tol Sarmiento Ezkurdin

Urriak 14, zapatua

7:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

8:00 Sukalki txapelketa Landako Gunean. Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué. Izen ematea eta informazioa Intxaurren irailaren 19tik aurrera, plazak bete arte

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00 Durangoko pilota eskolako partiduak San Fausto pilotalekuan. Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Gazte Eguneko kamiseta banaketa Santa Anan

12:00 Arte martzialen kalejira Urkiola kaletik hasita, Alde Zaharretik eta erakustaldia Ezkurdin. Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu. (Euria bada, Ezkurdi frontoian)

12:30 Gazte kalejira Santa Anatik Txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea

12:30 Bogoroditsie abesbatzagaz Bilbainadak kalejira Alde Zaharretik

13:15 Show musikala Andoni Oilokiegi kantariagaz Andra Mariko elizpean

14:30 Gazte bazkaria Txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

16:00 Skate erakustaldia eta tailerrak Landako skate pistan. (Euria bada ez da egingo)

16:30 Musika animazioa Ainhoa DJagaz Landako Gunean

17:00 Gazte jolasak. Txosnagunera

17:00 Tortilla txapelketa San Fausto frontoian.
Antolatzailea: Centro Social San Fausto

17:00 Familientzako herri kirolak Ibaizabal parkean.
Antolatzailea: Auzo Alai elkarte. (Euria bada, Maristak ikastetxean)

17:30 Poteo transmaribolloa Pinondotik txosnagunera,
Kuir Eztanda. Antolatzailea: Txosna Batzordea

17:30 Senegaleko erritmoak M'Lomp elkarreagaz
Ezkurditik hasita

18:00 Gazte karropotea Txosnagunetik hasita.

18:00 'Glups' kale ikuskizuna, Yllana & Nacho Villar konpainiagaz Ezkurditik hasita. (Euria bada, Andra Mariko elizpean)

18:30 Tangoen ekitaldia Plateruena Kultur Aterpean
La Tipica Orkestragaz (Montevideo-Durangoen arteko senidetze ekitaldien barruan). Dantzen erakustaldia eta ondoren, milonga

19:00 Musika korala Coral Spiritual Mallorca A L'Octava taldeagaz San Frantzisko Elizan.

19:00 XXXIX. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finala Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Eskola

19:00 - 21:00 Haurrentzako dantzaldia animatzaileagaz San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

19:30 80ko eta 90eko hamarkadetako musika Lowe Banda taldeagaz (Duncan Dhu, Los Secretos, Miguel Ríos eta Fitoren kantak) Ezkurdin

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

21:30 Animazioa Alde Zaharretik **Ghanako Txarangagaz**

22:00 Les Sauvage MJ eta DJ Eromena. Txosnagunean

22:00 Dantzaldia San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

22:30 Acero orkestra Madalena auzoan

23:30 Kontzertua: Carlos Jean Ezkurdin

Urriak 15, domeka (Umeen Eguna)

7:00 Diana Jaizale txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

10:00 - 13:00 San Fausto haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen ematea 10:00etatik 12:00etara. Adina 6 urtetik 17ra. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

10:30 - 14:30 Artisau azoka Eixu elkarreagaz Ezkurdin

11:00 Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldibereko partidak. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

11:00 Umeentzako goitibeheren jaitsiera, probaketa tailerrak Tabira auzoan

11:30 Kalejira erraldoi eta buruhandiekin Alde Zaharretik

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Patxikotxuren kalejira Kurutziaga Ikastolagaz Ezkurditik udaletxeraino, **erraldoi eta buruhandiek lagunduta.** Ondoren, **ohorezko aurrekua**

12:30 Txupinazo txikia Kurutziaga Ikastolaren eskutik Udaletxeko plazan

13:00 Erromeria Luhartz taldeagaz Ezkurdin

13:00 'Durango Uria' XXIII. Margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte

14:00 Nagusientzako bazkaria Landako Gunean **orkestrak girotua**

14:30 Herri bazkaria San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

16:00 II. Goitibeheren jaitsiera Tabiran

17:00 Bits jaia, txokolatada eta saltsa dantzaldia Murueta Torre auzoan. Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte

18:00 eta 19:30 (saio bi) Familia guztiarentzat 'Carrillón' ikuskizuna Kataluniako Cía La Tal taldeagaz. Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

18:00 Maskoten erakustaldia San Fausto frontoian. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

18:30 Erromeria Luhartz taldeagaz Ezkurdin

viteri
HORTZ-KLINIKA

944 14 80 36 | 626 18 30 30

Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia

www.clinicadentalviteri.com

Lehen bisita:
Erradiografia, diagnostikoa
eta hortzak
garbitzea doan

Deskontuak Inplantologian eta Ortodontzian

PROMOZIOAREN
LUZAPENA

(2023ko azaroaren 24ra arte)

Finantzatu zure tratamendua 24 hilabetera arte, interesik gabe.

Durangoko jaiak 2023

19:00 Imanol kantariari omenaldia Imanol Oroitz kantaldiagaz. San Agustin Kultur Gunean. Sarrerak 8 euro. Antolatzailea: Herria Auzo elkarte

20:00 Magia ikuskizuna Andra Mariko elizpean, 'Un, dos, tres... magia' Sun Magoaren eskutik

Urriak 20, barikua

17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak Ibaizabal parkean. Simulazioa 19:00etan. (Euria bada, San Antonio Ikastetxean)

18:00 'Terrazeo' girotua Txosnagunean

19:00 Elektrotxufla elektrotzaranga Alde Zaharretik

19:00 Tortilla txapelketa Txosnagunean. 20:30 sari banaketa

20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie eta Izar Gaztea

20:00 'Boca Beats' komedia Andra Mariko elizpean

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

22:00 Nakar, Toc eta Biznaga Txosnagunean

22:30 Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: **Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Gorka Pagonabarraga eta Eneko Abasolo 'Abarkas'**. Gai jartzailea: **Unai Iturriaga**. (Gonbidapenak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 10etik aurrera eta leku guztiak bete arte)

23:00 Huntza taldea Ezkurdin

Urriak 21, zapatua (Mozorro Eguna)

7:00 Diana Jaizale txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 - 14:00 Haur tailerrak ASEBIER elkartearen eskutik Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Kalejira trikitalariekin Txiri-Txiri taldearen eskutik

12:00 Patata tortillaren XIV. txapelketa Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/16 urtetik gorakoak. Izen ematea eta informazioa: Intxaurren 26tik aurrera, plazak bete arte

12:30 Xaibor disko-festa haurrentzat Ezkurdin

13:15 Bilbainadak Andra Marian: Gaupasa

13:00 Elkartasun bermut musikatua. KSKA kolektiboaren musikak girotuta. Bitartean, elkartasun moztorro argazkiak Txosnagunean

16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean)

17:00 Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz Madalenatik

18:30 Zirkua eta antzerkia Aurora Abasolo parkean **Proyecto Kavauriren eskutik, 'Lullaby' ikuskizunagaz.** (Euria bada, Kuruziaga Ikastolan)

18:30 Taldekako moztorro desfilea Madalenatik Ibaizabal parkeraino. Amaieran sari zozketa. Izen ematea: urriaren 2tik 19ra Intxaurren.

18:30 Astronomia eskulan tailerrak: suziariak, eskornagots... Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte. (Euria bada, ez da egingo)

20:00 Karaokea Goazen-egaz Ibaizabal parkean

21:00 Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte. (Euria bada, ez da egingo)

21:00 Zezensuzkoa San Fausto auzoan

22:00 Sound System. Aiaraldeko soinu sistema

23:00 Vulkano orkestra Ezkurdin

Kaixo Durango!

Ondo pasa
San Fausto
jaietan!



 **EROSKI**
zurekin

00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Droga mendekotasunen Prebentziorako Arloa

Urriak 22, domeka

7:00 Diana Jaizale txistulariekin

7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin

10:30 Nesken eta mutilen San Fausto XI. Padel txapelketako finalak Landako Kiroldegian. Antolatzailea: Padel zaleak

11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean)

12:00 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du J.M. Barandiaran egoitzan

12:00 Txiki Txef tailerrak Tabira auzoan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin

12:00 Poneyak eta zaldiak Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo)

12:00 - 14:00 Arku-tirorako gunea Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean)

12:30 Herri Kirolak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta (Euskal Herriko Txapelduna), **Alex Txikon, Goizeder Beltza, Bihurri, Karmele Gisasola** (Euskal Herriko Txapelduna), **Nerea Egurrola** (Euskal Herriko Txapelduna) **eta Carlos Aretxabaleta**. (Euria bada, Landako Gunean)

13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz Plateruena Kultur Aterpean

16:00 Arku-tiro txapelketa Landako Gunean. Antolatzailea: Durangoko arkulariak

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L'Atelier Dantza Eskolaren eskutik Ezkurdin

18:00 Boleros 4 taldea Andra Mariko elizpean

18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik

19:30 Patxikotxuri eta jai ei agurra, udaletxeko plaza tik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino

20:00 Jaien amaiera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan

Urriak 27, barikua

20:00 Hitzaldi ikusgarria, udaletxe plazan. **Margolan musikalak** udaletxeko fatxadan. Antolatzailea: Gerediaga Elkarte. (Hizkuntza: gaztelania)

Urriak 28, zapatua


16:30 Umeentzako atletismoa Ezkurdin plazan: **jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, ginkana)**. Izen ematea: durangokiroltaldea@gmail.com Antolatzailea: Durango Kirol Taldea. (Euria bada, Landako Gunean)

20:00 Durango Txistu Kontzertua 2023 Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkarte

Urriak 29, domeka
(54. Umeen Euskal Jaia)

12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdin plazan. (Euria bada, Landako Gunean). Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea


18:00 Herri Maite taldearen akordeoi kontzertua San Frantzisko elizan




Leku aldatzea!

Laster Eroskiren aurrealdean egongo gara.

www.tabiracolor.com





Okm:
batzen gaituen distantzia

abantaila guztiak hemen >

30€ urtean!

anboto kide

Egin zaitez anbotokide!

ALLUITZ MOTOR ZURE KONTZESIONARIOA VOLKSWAGEN, AUDI ETA SEAT DURANGON






ZERBITZU OFIZIALA • SALMENTA ZERBITZUA ETA SALDU OSTEKOA • TAILER MEKANIKOIA

ALLUITZ MOTOR ALLUITZ KALEA, DURANGO TLF. 946 20 20 04

GOZATZEKO TEKNOLOGIA

DURANGO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

EMAN IZENA **72,36€**

Ziurtagiri Ofiziala
Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line)
Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Zubiaurra Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 946 81 66 45
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

EUSKO FORUEN GOBERNU VAZCO
HEOI
Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

AXA

AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.asegurua@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutzia, 26 DURANGO
94 681 60 22 / 94 658 47 03
688 60 12 30

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162
Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es



Huntza.

ETS, Huntza, Raimundo El Canastero eta Nebrashka, Durangoko jaietako musika eskaintza

Urriaren 12an, eguerdian, Mugarra Triatloi taldeak jaietako hasiera emango dien txupinazoa jaurtiko du udaletxeko balkoitik

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Geroago eta gutxiago falta da Durangoko San Fausto jaietako hasiera emateko. Askotariko ekitaldiek biribilduko dute aurten ere jaietako egitaraua. Aurten Mugarra Triatloi Taldeak botako du txupinazoa, urriaren 12an. "Guretzat oso pozgarria da", adierazi dute Mugarra kideek. Gainera, data berezi baten atarian daude: 2024an 20. urteurrena ospatuko dute. Baina euren lana ez da pregoilari izatera mugatuko. Biharko, urriak 7, duatloi herrikoia antolatu dute. Goizean izango da. Eta arratsaldean Euskal Herriko zirkuituan sartuta dagoen mendi duatloia egingo dute. Emakumeen parte hartzea sustatzeko zapatu honetarako antolatu duten ekimena ere gogoratu dute jaietako aurkezpenan.

Bestalde, urriaren 15eko txupinazo txikia botatzea Kurutzia-ga Ikastolari dagokio. Ikastolako Inhar, Lea eta Jare ikasleak "esker oneko eta oso pozik" agertu dira aurkezpenan. Ildo beretik berba egin du ikastolako zuzendaria den Urko Rodriguezek ere, eta jaietan

parte hartzera gonbidatu ditu herrietarrak.

Txosnetako txupinazoa Karrika antzerki taldeak jaurtiko du.

Irati Bilbao Band taldea dantzari batzuen laguntzagaz ariko da urriaren 13an, Otamotzenan

Musika egitaraua

Urtero legez, musika eskaintza zabala egongo da. Honako hauek dira musika taldeetarako batzuk: Raimundo el Canastero urriaren 12an, Carlos Jean urriaren 14an, En Tol Sarmiento urriaren 13an, eta Huntza taldea urriaren 20an. Nebrashka eta Luhartz taldeek ere emango dute kontzertua jaietan.

Askotariko ekimenak

Beste hamaika ekimen ere nabarmendu dute. Durangok Montevideogaz duen senidetzea lantzen jarraitzeko, tango erakustaldi bat



En Tol Sarmiento.

A-ALKI

Erreformak eta dekorazioa

Mikeldi 6 Durango (Bizkaia)

www.interioresalki.com

alki@interioresalki.com

94 681 38 95 - 679 097 744



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

RPS.: 57/16

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozqueta errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com



**UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

LOTERIAK
PRENTSA

barik

IKERFER



Ermodo, 25 behea
Durango
Tel.: 946 810 566

gingo dute Plateruena kultur aterpean. Bikote profesional batek eta Durango beste dantzari batek parte hartuko dute erakustaldian.

Irati Bilbao durangarraren Irati Bilbao Band taldearen emalaldia ere azpimarratu daiteke. Dantzari batzuen laguntzagaz arituko dira, urriaren 13an, Otamotzena parkean. Horretaz

Aurtengo jaietako beste nobedadeetako bat barraken kokapena izango da, trenbide zaharreko orubean

gainera, magia ikuskizun bat egongo da Iñaki Ruiz de Galarreren eskutik, Sun Magoa lez ezagunagoa dena. Magiaren Sari Nazionala irabazitako magoa aparatatu handiekin arituko da, Andra Mariko elizpean. Bestelako ekimenen artean, txarangen arteko

topaketa, Urban Jaia, Dantzaro eta Durango Kantari, eta antzerki, zirku eta kale animazioko hainbat ikuskizun nabarmendu daitezke.

Mireia Elkoroiribe alkateak eskerrak eman dizkie jaiak antolatzen ibili diren jai batzordekoei nahiz bestelako eragile eta langile guztiei. "Osoa eta erakargarria den egitaraua antolatu duzue", adierazi du. Era berean, jaiak "lasaitasunean eta modu zibilizatuan" gozatzeko eskatu die herritarrei. "Jai hauek denok berdintasunean gozatzeko izan daitezela. 'Bai' bakarrik da 'bai', eta, beraz, errespetuz gozatu ditzagun jaiak".

Barrakak trenbide zaharrean

Aurtengo jaietako beste nobedadeetariko bat barraken kokapena izango da. Iaz TADUko aparkalekuan egon eta gero, aurtun espazio berria estreinatuko dute trenbide zaharreko orubean. Horretarako, udalak espazio hori atondu behar izan du.



lazko jaietako txupinazoaren irudia.

AMALUR
etxe-ko kriston gildak

Etxeko berezitasunak: gildak, pintxoak eta bermutak.

Muruetatorre auzunean Amalur 1
eta Barrenkalen Amalur 2
692 150 199

AI AMA!

ZERO

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.

Andra Mari, 6 Durango
Tel.: 946 812 222

DURANGOKO JAIXETAN JAN, EDAN ETA GOZATZEKO LEKU APROPOS!

Gora sanferstoak!

TEL: 946 216 372 · @6DRAGORAKAFE

MESOI BARRIA

Tel.: 946 030 341

MIKELDI TABERNA

Kalebarria 7 -Durango (Bizkaia)
Tel.: 94 407 39 88

NAPOZY

Josemiel Barandiaran, 8
DURANGO
Tel.: 946 00 40 86

KIXO

Fray Juan de Zumarraga, 1
DURANGO

RUGBY TABERNA

Goienkalea, 18 DURANGO
Tel.: 946 200 007
www.durangorugby.eus

Alcampo-k Jai Zoriontsuak opa Dizkizu

DURANGO
Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepidea.

"Ez dugu hainbeste entseatu beharko, baina estreinu bat balitz legez hartu dugu"

Karrikak jaurtiko du Durangoko Txosnagunearen txupina, urriaren 11n, antzerki taldearen 25 urteko ibilbidea aitortzeko

TXOSNAGUNEA • ARITZ MALDONADO

Karrika antzerki taldeko lagunek estreinu baten modura hartuko dute txupina jaurtitzeko ardura. Baina, normala den moduan, euren ukitua emango diote ekitaldiari. "Azken urteetan hankapaloak eta sua albo batera utzi ditugu. Aktore lana eta eszenografia gehiago lantzen ahalegindu gara, bestea ahaztu barik, jakina. 'Txotxe' [Jose Martin Urrutia, Karrikaren sortzailea] kale antzerkia eta antzerki iraultzailea egitearen aldekoa zen; horixe zen bere ezaugarria. Eta txupina botatzea eskaini zigutenean, esan genuen: 'Ezin dugu pertsona normalen moduan egin hau, *Karrikada* bat egin behar dugu; bestela, ez du zentzurik'", azaldu du Maite López Karrikako kideak; Lopezek Karrikaren ibilbide osoa darama antzerki konpainiari lotu-

ta. "Txupina zoroa eta koloretsua izango da, gure estiloan", gehitu du Gorka Madrazo Karrikako kideak. Biek lana eta parranda uztartu beharko dituzte jaietan, baina gogotsu daude urriaren 11 heltzeko. "Ez dugu hainbeste entseatuko, baina guretzat estreinu bat modukoa izango da", esan dute.

Esker oneko ekitaldia

Karrikakideak topera heldu dira 25. urteurrenera. Jaien ondoren, Gaba Baltzan parte hartuko dute; gero, Durangoko Azokan egongo dira, Ikasle Egunaren barruan, eta urteurrena borobiltzeko, jai ekitaldi bat egingo dute. "Berez aurten egiten ditugu 25 urte, 2023an, baina geure erara egingo dugu hau ere; urtarrilean egingo dugu urteurren ekitaldia, eta karteletan '25+1' ipini beharko



Maite López eta Gorka Madrazo Karrikako kideak.

"Ezin dugu pertsona normalen moduan egin hau, 'Karrikada' bat egin behar dugu; bestela, ez du zentzurik"

dugu errotuladoreekin", dio Lopezek barre artean. Urte hauetan guztietan Karrika familia -edo sekta, barre artean aitortzen duten lez- osatu duten lagunek parte hartzea gura dute, eta baita herri-tarrak ere. "Durangoko elkarte

ia guztiekin dugu hartu-ema-na. Horrez gainera, Durangoko egunerokoan Karrika hor dago, konpainiatik pasatzen diren herri-tarrak ere herrigintzan eta bizitzan txertatuta daude", gehitu du Madrazok.

URRIAK 11 EGUAZTENA

19:30 / KALEJIRA
Santa Anatik Txosnagunera
20:00 / TXUPINAZOA TXOSNAGUNEAN
Karrika Antzerki Taldea
21:30 / KONTZERTUAK
INSOMNIA
DUBE
EZTA ILEN
NEVADAH

URRIAK 12 EGUENA

13:00 / Pantxike eta Patxikotxuren jaitziera udaletxeko txupinazoraino
21:30 / DJ maratoni herrikoia

URRIAK 13 BARIKUA

12:00 / JOLASAK TXOSNAGUNEAN
Berbaroren eskutik haur eta familientzat
12:30 / PAELLA TXAPELKETA
14:00 / SARI BANAKETA
17:00 / ERREKA JAITSIERA
Mañaria erreka jaitziera Tabiratik
18:30 / PINONDOTIK TXOSNAGUNERA
BROKEN BROTHERS BRASS BAND
22:00 / KONTZERTUAK
IBIL BEDI
SKABIDEAN

DURANGOKO JAIXEK

2023

URRIAK 14 ZAPATUA GAZTE EGUNA

12:00 / KAMISETA BANAKETA
Santa Anan
14:30 / BAZKARIA
17:00 / KIROL TXAPELKETEN FINALAK
BAZKALOSTEKO JOLASAK
19:30 / TXARANGA
MAUXITXA
Txosnagunetik hasita
17:30 / POTEQ TRANSMARIBIBOLLOA
Pinondotik txosnagunera, Kuir Eztanda
22:00 / DJak
LES SAUVAGE MJ
DJ EROMENA

URRIAK 20 BARIKUA

18:00 / TERRAZEO GIROTUA
19:00 / TORTILLA TXAPELKETA
20:30 / SARI BANAKETA
22:00 / KONTZERTUAK
NAKAR
TOC
BIZNAGA

URRIAK 21 ZAPATUA ELKARTASUN ETA MOZORRO EGUNA Gaia: Arte eszenikoak

13:00 / ELKARTASUN BERMUT MUSIKATUA
KSKA kolektiboaren pintxadak girotua
Bitartean / ELKARTASUN KEINUAK
22:00 / SOUND SYSTEMA
AIARALDEKO SOINU SISTEMA

**EZ DA INOLAKO
JARRERA EDO ERASO
SEXISTA
LGTBIQ+FOBIKO
ZEIN ARRAZISTARIK
ONARTUKO.**



**DURANGOKO TXOSNA BATZORDEA
JAIK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT**

TXOSNAGUNEA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Txosnagunea jaietako epizentro garrantzitsua da jaietan, eta egitaraua ekitaldiz beterik dator aurten ere. Landako Gunean ipiniko dituzte txosnak, iazko formatu antzerakoan: karpa bi, sukaldeta eta eszenatoki handia. Dena prestatzen dabilta jaietako egunetan jai giroa nagusi izan dadin. Herriko elkartegintzaren bateragunea da txosnagunea. Barrako txandak antolatzeke momentua da orain, jaietan gozamenerako eta lanerako tartea izaten da eta txosnagunean.

Mozorro Eguneko gaia 'arte eszenikoak' izango da, Karrika antzerki taldearen omenez

Landako Gunean urriaren 11n ekingo diete jaiak. Pantxikegaz batera kalejiran jaitsiko dira txosnagunera, eta Karrika Antzerki Taldeak irakurritako pregoiagaz hasiko dituzte jaiak. "Karrikatarek 25 urtez oholtzetatik herriari eman dioten guztia oholtza bat eta txosnagune oso bat eurei eskainita eskertu gura diegu", adierazi zuten txosnaguneko arduradunek egitarauaren aurkezpenean. Mozorro

Durangoko Txosnaguneak ekitaldiz beteriko egitarauari ekingo dio urriaren 11n

Karrika antzerki taldeak jaurtitako txupinazoagaz jaiak hasiko dituzte Landako Guneko espazioan

Eguneko gaia 'arte eszenikoak' izango da, euren omenez.

Musikari dagokionez, estilo desberdinetako taldeak ekartzen ahalegindu dira: *Insomnia*, *Dube*, *Ezta Ilen* eta *Nevadah* urriaren 11n; *DJ maratoi herrikoa* urriaren 12n; *Broken Brothers*, *Brass Band*, *Ibil Bedi* eta *Skabidean* urriaren 13an; eta *Nakar*, *TOC* eta *Biznaga* urriaren 20an, besteak beste.

Eguneko ekintzak ere askotarikoak izango dira. Jendetsuenerikoa paella txapelketa izaten da. Kuadrillan batu eta bazkari bueltan egun atsegina pasatzeko aukera ematen du. Eta saria poltsikora eramanez gero, askoz ere hobeto. Gazte Egunak ere bere egitarau propioa izango du. Aurten Elkartasun Egunak beste itxura bat hartuko du, 'bermuteoa' antolatu dutelako urriaren 21erako, KSKAren musikagaz.

Azkenik, txosnagunea "espazio segurua" izan dadin eta eraso arrazista, sexista edo LGTBI+ fobikoak ekiditeko, protokolo bat martxan egongo dela aurreratu zuten.



Txosna batzordeak egindako aurkezpenean egindako argazkia. UNAI OLASO

Arupa San Faustoa!!!

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, behea
48215, Iurreta

TXUPINAZOA • JOSEBA DERTEAN

Bata dela edo bestela dela, Mugarra Triatloi Taldeko familiari ez zaio zereginik faltako datozen asteburu bietan. Urriaren 12an udaletxeko balkoira irtengo dira jaiiei hasiera emango dien txupinazoa botatzera, eta horren aurretik, zapatu honetan, duatloilariz bete gura dute Durango ingurua, hainbat lasterketa antolatuta.

MugarraTTk 20 urte beteko ditu datorren urtean. Hamarkada biko ibilbidean lorpen garrantzitsuak pilatu ditu eta ez gara garaikurrei buruz ari bakarrik: duatloien eta triatloien mundua Durangoko kirol esparruan txertatzea eta egonkortzea lortu du, hainbat belaunaldi sentimendu berean batu du eta harro egoteko moduko harrobia landu du. Horregaitik guztiagaitik, aurtan eurek izango dute jaietako txupinazoa botatzeko ardura. Urriaren 12an, triatloi taldeko Jone Aizpurua, Lide Azueta, Iñigo Iraurgi eta Paul Bereziartua irtengo dira balkoira jaiiei hasiera emateko. Eurez gainera, MugarraTTk izan dituen presidente guztiak ere izango dira bertan: Beñat López, Serafin Bereziartua, Elena Asenjo, Jose Manuel González eta Josu Barrutia. Barrutia da gaur egungo presidentea. MugarraTTko kideek jaien aurkezpeneko prentsaurrekoan adierazi zuten "ohore bat" dela txupinazoa botatzea.

Duatloi txapelketa

Baina txupinazoa bota aurretik, badituzte aurreragoko lanak. Zapatu honetan, egun osoan zehar, hainbat duatloi egingo dute: goizean, umeei eta afizioa dutenei zu-

Mugarra Triatloi Taldeak jaietako txupinazoa botako du eta hainbat duatloi antolatu du biharko

Txupinazoaren egunean MugarraTTko lau lagun udaletxeko balkoira igo eta euren ondoan triatloi taldeko presidente izandakoak egongo dira; baina horren aurretik, zapatu honetan, duatloilariz beteko dute Durango ingurua



Mugarra TTko familia argazkia.

zendurikoa, eta arratsaldean federatuena. Beste behin ere duatloiak Durangoko kaleak eta inguruak hartuko ditu, kirol honegatzko zaletasuna lau haizeetara zabalduz.

Federatuen duatloia nobedadea da. Lehenengoz egingo dute. Duatloi herrikoia eta federatuena bereiztuz, bakoitzari bere espazioa eman gura diete. Federatuena 16:00etan hasiko da, Tabira parkean, eta goi-mailako parte hartzaileak izateko osagaiak ditu.

Izan ere, Durangoko proba Euskal Herriko zirkuituko parte izango da, eta, gainera, Euskal Herriko txapeldunak erabakiko ditu. Ibilbideari dagokionez, parte hartzaileek zortzi kilometro egingo dituzte korrika, eta beste 21 bizikletan. Bidean "paisaia ederrekin" gozatzeko aukera dagoela azaldu du MugarraTTko Paul Bereziartuak: "Paisaiek egiten dute bereizgarri. Bai bizikletan eta baita korrikako zirkuituan ere. Ibilbidean

zehar Mugarra, Untzillatx, Alluitz eta Anboto mendiak ikusten dira. Zirkuitu erakargarriak direla uste dugu".

Proba honek berezitasun bat du: bakarka nahiz erreleboka egin daiteke. Hau da, lana banatu egin daiteke: bat korrika eta beste bat bizikletan. "Bakarka egiteko gogor samarra izan daiteke batzuentzat, basoan korrika zein bizikletan ibiltzera ohituta egon behar duzu eta. Lanak banatuta,

korrika ibili ohi denak horixe egingo du, eta berdin bizikletan ibili ohi denak ere. Jendea parte hartzera animatzeko ate gehiago zabaltzen ditu", adierazi du Bereziartuak.

Umeen duatloiak

Egun berean, baina goizean, Durangoko Duatloi Herrikoiak 17. aldia egingo du Tabira parkean. Umeen saioak 11:00etan hasiko dira eta adin tarteka banatuko

ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

Bizitza zoragarria da atsedeen hartuz gero.

Zure premiari erantzuleko prest izango gara:
bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

ANELAN
LAN BERTIKALAK / TRABAJOS VERTICALES

FATXADA ETA PATIOEN BIRGAITZEAK
TEILATUEN MANTENIMENDUA
BIZI BIDEAK (LÍNEAS DE VIDA)
LEHIOEN GARBIKETAK

BIZKAIA / NAFARROA
722 345 215 / 616 413 660
info@anelan.pro

DEITU ETA GALDETU KONPROMISURIK GABE

DESGUACES PILASTRA

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
Osagarrien salmenta: 946 201 787
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOPEDIATRIA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behean - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

dituzte: 8-9 urtekoak (200 metro korrika, 500 metro bizikletan eta 200 metro korrika), 10-11 urtekoak (500 metro-2 kilometro-500 metro) eta 12-14 urtekoak (1 kilometro- 3 kilometro-500 metro). Izen ematea egunean bertan egin daiteke, 10:00etatik aurrera, probak hasi baino orduerdi lehenagora arte. Urtero

"Hiru duatloiei garrantzi berdina ematen diegu. Denek egun eder bat pasatzea gura dugu"

legez, mimos prestatzen duten ekimena da, Mugarra Triatloi Taldearen altxorrik preziatuenaren euren triatloi eskola eta harrobia direlako. "Atzetik datozenak dira gure oinarria. Apurka kirolari gustua hartzen joan daitezela gura dugu; gustua ez duatloiar edo triatloiar bakarrik, jarduera fisikoari baino orokorrean. Ume denak parte hartzera animatzen

ditugu. Edonork egiteko moduko ibilbideak dira. Azken batean, ondo pasatzea da asmoa".

Gaur egun triatloi eskola "indartsu" dagoela dio Bereziartuak. "7 urtetik aurrerako 60 bat gazte ditugu guztira, eta gogotsu dabil-tza".

Duatloi herrikoia

Umeen saioaren ondoren, 13:00etan, 14 urtetik gorako duatloi herrikoia hasiko da, Tabirako parkean. Parte hartzaileek 1,5 kilometro egingo dute korrika, 8,5 bizikletan, eta beste kilometro bat korrika. Urtero legez, kasu honetan ere zaletasuna dutenei euren gustuko kirola praktikatzeko aukera eskaintzea da helburua, eta horretara bideratu dute euren esfortzua. "Parte hartzen dutenek lasterketaz gozatzea gura dugu. Arratsaldekoa Euskal Herriko txapelketa da, baina zapatuan egongo diren hiru lasterketei garrantzi berdina ematen diegu. Denek egun eder bat pasatzea gura dugu", azpimarratu du Bereziartuak.



Serafin Bereziartua, Jone Aizpurua, Lide Azueta, Paul Bereziartua, Josu Barrutia eta Luis Mari Bereziartua, jaietako aurkezpeneko ekitaldian.

zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus

Jhu jesuitak
Durango

jazz solutions

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza
barne diseinua
kudeaketa bisuala
lan guneak

Durango Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0014485
K.Z.: 0544-BI

ERLIA CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

Podología A. Urrera

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIURIA

688 864 975
zuretxokoa@gmail.com

ZURE txokoa
www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 beheka, 5. esk. - 48.200 Durango - BIZKAIA

1955an sortua
GALLASTEGI harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus

“Durangoko jaietako gauzarik garrantzitsuenak ipini gura nituen kartelean, berezienak”

Oier Gamizek artopilak, Zezenak Dira eta jaietako bestelako ikurrak batu ditu kartelean

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten, durangar baten lanak iragarriko ditu San Fausto jaiak. Lehiaketara aurkezturiko 28 proposamenetatik zazpi aukeratu zituen Jai Batzordeko epaimahaiak, eta azken berba herritarrek izan dute, bozketa publiko baten bitartez. Jasoriko 365 botoetatik ia erdiak (173) Oier Gamizen 'Esfera' izeneko kartelarentzat izan dira. Jai egun hauetan, durangarrak herriko txoko guztietan ikusiko du bere sormen lana.

Durangoko San Fausto jaietako kartel lehiaketa irabazi duzu. Duranga-

rra izanik, zer suposatzen du horrek zuretzat?

Egia esan, hasieran sinistu ere ez nuen egiten. Niretzat ohore bat da lehiaketa hau irabaztea. Durangarra izanik, gainera, izugarria da. Oso pozik nago. Irabazlea nintzela jakin nuen egunean ere esan nuen, eta berriro diot, oso eskertuta nago. Eskerrak eman gura dizkiet botoa eman duten guztiei.

Ez da San Fausto jaietako kartel lehiaketara aurkeztu zaren lehenengo aldia.

Ez, bigarren aldia da. Iaz parte hartu nuen lehenengoz, eta biga-

rren geratu nintzen. Eta aurten, Durangokora aurkezteaz gainera, Zaldibarko lehiaketara ere aurkeztu naiz. Zaldibarkoan ere bigarren geratu naiz.

Zelan bururatu zitaizun kartel lehiaketara apuntatzen hastea?

Betidanik marraztu izan dut eta diseinua ere asko gustatu izan zait. Ikus-entzunezko goi mailako gradua ikasi nuen eta, azken batean, dena erlazionatuta dago. Egun batean marrazten hasi nintzen, eta ikusita kartel lehiaketak daudela, probatzea erabaki nuen. Dena apur bat hortik etorri dela esango nuke.

Zelakoa izan da kartela egiteko prozesua? Hasieratik argi zenituen ideiak?

Prozesua luzea izan da, oso luzea. Eta ez, hasieratik ez nuen argi zer islatu gura nuen. Ideia guztiz ezberdin bat nuen, baina gero, beste hau irten zen. Orria hartu eta irudikatzen hasten naiz, moldatzen. Eta apurka-apurka hortik irteten da nire lana. Ez dut boztorik izaten.

Abendutik buruan neukan zerbait izan da, eta apurka-apurka garatzen joan naiz, aldaketak egiten. Horrek denbora eskatzen du eta prozesua luzea izan da, bai, oso luzea.

Gustura geratu zara egindako lanagaz eta azken emaitzagaz?

Bai, pozik geratu naiz egindako lanagaz. Gura nituen ideiak sartu ditut eta nahiko ondo geratu dela esango nuke.

Zer ideia islatu gura zenituen 'Esfera' kartelean?

Durangoko San Fausto jaietako elementurik eta osagairik garrantzitsuenak ipini gura nituen,

berezienak. Hau da, artopilak eta Zezenak Dira, besteak beste. Horrelako lehiaketak esperien-

Orria hartu eta irudikatzen hasten naiz, moldatzen. Eta apurka-apurka hortik irteten da nire lana. Ez dut boztorik izaten

tzia positiboak iruditzen zaizkizu? Jendea parte hartzera animatuko zenuke?

Bai, esperientzia positiboak dira. Horrelako lehiaketek oso aukera politak ematen dituzte, eta denak animatuko nituzke.

Durangarra izanda, seguru ibiliko zarena San Fausto jaietan.


Jakina! Kuadrillako lagunekin irtengo naiz. Eta, betiko lez, ondo pasatzera eta disfrutatzerara irtengo gara.

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



MARKIEGI

ELEKTRIZITATEA ETA ARGIZTAPENA

Tabira 3, 48200 Durango

e-mail: markiegi@markiegi.com

www.markiegi.com

946 203 520



T3
tabiraberezi
Telekomunikazioak
Informatika



Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango

94 681 22 04

info@tabiraberezi.com

www.tabiraberezi.com

DURANGO ARGONAK **La Pajarita** **MONTÓ**

VENTA DE PINTURAS MAQUINARIA Y COMPLEMENTOS

Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO | Telf. 94 640 88 20
info@durangomargoak.com | www.durangomargoak.com



Oier
Gamiz Perez
Kartel egilea
DURANGO | 2000

22 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA BERRIA

BIGARREN FASEKO DENA SALDUTA,
HIRUGARREN FASEA HASITA ETA
AZKEN ETXEBIZITZAK SALGAI.

DEITU INFORMAZIOA JASOTZEKO



ERTZAIN ETXEAREN ONDOKO BIRIBILGUNEAREN
ALBOAN. KURUTZIAGA ONDOAN, DURANGON.



946 814 495
618 068 747
650 397 007



'Andereño'

ANTZERKIA ZORNOTZA :: Urriak 7 eta 8

Anita Maravillas konpainiaren azken obra, Zornotza Aretoan

Errepublikara garaiako andereñoak eta euren ikasleak dira Anita Maravillas konpainiaren azken obrako protagonistak. Askatasuna, horixe da irakasle hauek gehien maite duten berba. Bada, euren gela askatasunez haztea gura dute. Baina, zoritxarrez, gerra hasiko da. Ondorioz, protagonistek atzean utzi beharko dute amesturiko eskola, maitasunetik eta elkarren zaintzatik eraikitako es-

kola. Anita Maravillas konpainiako kideen berbetan, "Andereñoen istorioa aske eta zoriontsu izateko saiakera ero eta ederra da".

Titereak eta antzerki bisuala landuz sortu dute *Andereño*, mugimenduari garrantzi handia emanaz. Animaliak protagonista direla, ipuin itxura du istorioak, eta Zornotza Aretoan egongo da ikusgai, gaur eta bihar; 20:00etan eta 17:30ean, hurrenez hurren.

Urriaren 6an

ABADIÑO **berbaldia**

Geu Be Elkarte, 18:30ean, Isioturen lokalean.

ELORRIO **antzerkia**

'Control Freak' (Kulu Orri), 20:00etan, Arriola antzokian.

Urriaren 7an

BERRIZ **berbaldia**

Ondarearen jardunaldiak: 'Dantzari Dantza', 11:30ean, udaletxean. **San Lorentzo eta Iremiñe dantza taldekoek Agintariena eta Banangoa dantzak irakatsiko dituzte. San Pedro jaietako pontxea dastatuko dute.** Gerediaga elkarteak antolatuta.

DURANGO **dantza**

'Sintoniak' (Hotzikara dantza konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA **dantzak**

Dantzaldi ibiltaria, 20:00etan, Askondoko karpan.

Urriaren 8an

ABADIÑO **kontzertua**

Audience taldea, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

ABADIÑO **pailazoak**

Umeentzako jarduerak,

Ferialekuan,(11:00 - 14:00).

'Urteak bete, abenturak bizi!' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak), 17:30ean, probalekuan.

ABADIÑO **erakusketa**

XXX. Perretxiko Erakusketa (Geredixa elkarte), 11:00etan, Errota kultur etxean. **Perretxiko banderillak probatzeko aukera.**

DURANGO **antzerkia**

'Anbotoko Mari' (Logela Multimedia), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA **musika**

Alexander Brizuela Ruiz, 18:00etan, Batzokian.

Urriaren 13an

ZORNOTZA **jaialdia**

Mangamore Mitsuru Nagata, Sumi-e erakustaldia, 18:00etan, Amorebieta IV frontoian. **Zaurien makillaje tailerra (Txebasfx)**, 17:00etan, Zelaieta zentroan. **'Ilustrazioa eta Concept Art' hitzaldia**, 18:00etan, Zelaieta zentroan. Hizlariak: Maitane Echevarria marrazketa irakaslea eta Alfonso Berroya (EHUko Arte Ederren fakultateko dekanordea). **Zelan marraztu Kawaii tailerra**, 19:00etan, Zelaieta zentroan. **Umore horia eta puzgarriak**,

Herriko plazan (17:00 - 21:00).

Zornotzako Musika Banda, 20:00etan, Amorebieta IV frontoian. **Txapelketak** Zornotza Aretoan.

Urriaren 14an

OTXANDIO **berbaldia**

Ondarearen Jardunaldiak: 'Akelarretik txitxiburduntzira' izenburupean berbaldia, kantaldia eta dastatzea, 12:00etan, Mekoletako Arkotxe elkartearen. Gerediaga elkarte.

ZORNOTZA **jaialdia**

Mangamore Ludosport Hispania, argisable borrokaldi tailerra, 11:00etan eta 19:30ean, Amorebieta IV frontoian. **Ekialdeko joko tradizionalak (Tarasu elkarte)**, 11:00etan, Zelaieta zentroan. **Manga Marrazketa (Egoitz Pinto)**, 11:00etan, Zelaieta zentroan. **'Japoniara erraz bidaiatu' (Juan Carlos Pérez)**, 11:30ean, Zelaieta zentroan. **El quinto emperador, One Piece kahoot**, 12:00etan, Amorebieta IV frontoian. **Sumi-e tailerra (Mitsuru Nagata)**, 13:00etan, Zelaieta zentroan. **'Cosplay' hitzaldia (Mina Staliart)**, 13:00etan, Zelaieta zentroan. **Aida TM (Meet and greet)**, 13:00etan, Amorebieta IV frontoian. **Mitsuru Nagata, Jose Luque sumi-e erakustaldia**

eta Shamishen, 17:00etan,

Amorebieta IV frontoian. **Hauts iratxoak (Salient Art)**, 17:00etan, Zelaieta zentroan.

'Nola egin beldurrezko zinema japoniarra' hitzaldia (Alex Welder), 17:30ean, Zelaieta zentroan.

'Fantasiatzko euskidazkera: Euskal nortasuna eta mitologia genero garaikideko literaturan sartzea' hitzaldia (Nahikari Diosdado), 19:00etan, Zelaieta zentroan.

Kamisuno (Tarasu elkarte), 19:00etan, Zelaieta zentroan.

Cosplay eta pasarela txapelketak, 18:00etan (sari banaketa, 20:00etan), Amorebieta IV frontoian.

Kontzertua: Más Allá del Taiko (Sayako Antona), 21:00etan, Amorebieta IV frontoian.

Umore horia eta puzgarriak, Herriko plazan (11:00-14:00 / 17:00-21:00).

Txapelketak Zornotza Aretoan.

Urriaren 31ra arte

MAÑARIA **erakusketa**

'Kabi eta Arrautzak', Hontza Museoa.

Azaroaren 12ra bitartean

DURANGO **erakusketa**

'Bizitza baten islada: itsasoa, mendia eta gorputza', Arte eta Historia Museoa. Jaime Vicario artista durangarraren lanak.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• Todos los nombres de Dios

barikua 6: 19:00

zapatua 8: 19:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Tetuan

barikua 6: 18:00

zapatua 7: 18:30

domeka 8: 18:30

astelehena 9: 18:00

martitzena 10: 20:15

eguztzena 11: 19:00

• El exorcista: creyente

barikua 6: 18:30 / 21:00

zapatua 7: 16:30 / 19:00 / 21:30

domeka 8: 17:00 / 19:45

astelehena 9: 17:45 / 20:15

martitzena 10: 17:45 / 20:15

eguztzena 11: 19:00

• Golpe a Wall Street

barikua 6: 18:30 / 21:00

zapatua 7: 19:00 / 21:30

domeka 8: 19:45

astelehena 9: 18:00 / 20:15

martitzena 10: 18:00 / 20:15

eguztzena 11: 19:00

• Dispararon al pianista

barikua 6: 20:00

zapatua 7: 20:30

domeka 8: 20:30

astelehena 9: 20:15

martitzena 10: 18:00

• El reino de Terracota

zapatua 7: 16:45

domeka 8: 17:00

• Abentura erraldoia

zapatua 7: 16:30

domeka 8: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Bilboko Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Jaialdia

zapatua 7: 20:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:00

• Elemental

zapatua 7: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Cerrar los ojos

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:15

• Richard la cigüeña y la joya perdida

domeka 8: 17:00



Eneritz Garcia, Unai Eleizalde eta Ander Garaizabal aktoreak.

Logela Multimediaren 'Anbotoko Mari' Durangoko San Agustinen

Domekan izango da antzerki emanaldia, 18:00etan

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Etxean, Elorrioko Arriola antzokian estreinatu ostean, bere azken obraren aurkezpen bira egiten

dabil Logela Multimedia. "Pozik gaude egindako lanagaz, eta publikoa ere bai; halan esan ziguten askok, baita umerik barik joan

ziren nagusiek ere. Lehenengo emanaldia herrian bertan egiteak, gure publikoaren aurrean, arriskuak dakartza, baina onik ateraginen (barrez)", azaldu du Ander Garaizabal Logela Multimediako kideak. *Anbotoko Mari* lan berrian, Garik Anbotoko Mariaren aitzulotik osten duen harri magikoa du abiapuntua; Marik atzetik jarraituko dio, eta bidean Garik magia zoro ugari egingo du ihes egin ahal izateko. Marik Tartaloren, iratxoaren eta beste jeinu batzuen laguntza izango du. Ohikoa duen moduan, Logelak antzerkia, bideo-animazioa eta musika uztartzen dituen antzezlan multimedia aurkeztu du. "Istoriok honek guk gura genuen guztia dauka; eszenatokian paisaia magikoak eskaintzeko aukera, istorio berri bat sortzeko, Anbotok dituen berezitasunak (Amillena, Zurdaye, Bentaneta...), Euskal Herrietako mendietatik bidaiatzeko aukera, musika sorkuntzarako ere lagungarri... Naturaren jeinua da Mari!", gaineratu du Garaizabalek.


Harreragaz pozik, gogotsu daude aurrera begirako emanaldiei ekiteko. "Urtea amaitu aurretik hogeit bat emanaldi egingo ditugu. Domekako sarreren salmenta martxa onean doa eta berri pozgarria da hori", azaldu du Garaizabalek. Durangaldeko hurrengo emanaldia azaroaren 3an izango da, Berrizko Kultur Etxean. Imanol Garaizabalek zuzendu du obra. Dramaturgiagaz Sonia Villamorrek lagundu du, eta gidioa eta testua Edorta Barruetabeñarenak dira.

Aida.TM tiktokerra, Mangamoreren 17. edizioan

Urriaren 13tik 15era bitartean, Mangaren eta kultura japoniarren gune bihurtuko da Zornotza, 17. urtez

MANGAMORE • ARITZ MALDONADO
Manga eta Anime kulturen epizentro izateko prestatzen hasi da Zornotza, beste urte batez. Izan ere, Mangamore jaialdia egingo dute urriaren 13tik 15era bitartean, hamazazpigarren aldiz. Aurtengo edizioan Aida.TM tiktokerra etorriko da Zornotzara; 21 urteko emakumeak 450.000 jarraitzaile baino gehiago ditu, eta Sonia Cabeza Gizarte Ekintzako zinegotziaren berbetan manga edukia lantzen duen ilustratzailelerik ezagunenetakoa da. El

quinto emperador youtuberra ere egongo da bertan. Edizio honetako protagonistak familiak izatea gura dute antolatzaileek. "Manga eta Anime mundutik haratago doan ekitaldia da, eta familiak entretenitu eta asteburu ederra eskaintzea da helburua. Aurtengain, handitu egin dugu programazioa", azaldu du Ainhoa Salterain alkateak. Horrela, familia guztiarentzat berbaldiak, tailerrak, eta manga kulturako produktuak probatzeko azoka egongo dira.



Ainhoa Salterain alkatea eta Sonia Cabeza zinegotzia.

Ximon Agirrek egin du 58. Durangoko Azokaren irudia, fantasia ardatz hartuta

Agirre ilustrazioan, bideogintzan eta animazioan jardundakoa da. Hainbat musika taldegaz lan egin du

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO
58. Durangoko Azokaren leloa eta kartela aurkeztu dituzte gaur. Leloa *Fantasia DA!* da, eta kartelerako irudia Ximon Agirre artistak (Hernani, 1994) egin du. Fantasia Azokaren sortzaileen ameskeriagaz lotu du Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek. "58 urte igaro dira hasierako bultzatzaileen ametsetatik. Fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren ezinbesteko hitzordua da. Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarrea, boluntarioen lana, aspaldi ikusi bako lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende

alaiaren barbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa", azaldu zuen prentsaurrekoan Mujikak.

Ximon Agirre ilustrazioan, bideogintzan eta animazioan jardundakoa da, gehienbat. Musika talde askogaz lan egin du Agirrek; besteak beste, Belako, Lukiek, Toc, Kyxo, Amooma eta Kilimak taldeekin. Hiru dimentsioko irudi sakona da sorkuntza, errealitate birtualean landua.

Interneteko dendarik ez
Bestalde, Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzaileak jakinarazi zuen aurtengain ez dutela dendarik ipiniko sarean: "Aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu aurtengain".



Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentea eta Ximon Agirre artista.

Oihana Azkorbebeitiaren eta Lide Urrestarazuren arteko lehia estua espero da Anboto Kilometro Bertikalean

Anboto Kilometro Bertikalaren 14. aldia lehiatuko dute zapatu arratsaldean, Arrazolan hasita. Bizkaiko Koparako puntuagarria izango da.



Iazko Anboto Kilometro Bertikaleko irudia, Zabaletan.

KILOMETRO BERTIKALA • J.D.

Iaz kilometro bertikalen Euskadiko txapeldunak Anboton erabaki ziren. Aurten ez —Bizkaiko Koparako puntuagarria da—, baina zapatu honetan maila handiko korrikalariak batuko dira Arrazolan, Anboto Kilometro

Bertikala prestigiotsua irabazi guran.

Emakumeetan lehia estua espero da Oihana Azkorbebeitia abadiñarraren eta Lide Urrestarazu ordiziarraren artean: beterranoa eta gaztea aurrez aurre, izarra eta promesa. Biak puntu-puntuan

daude. Azkorbebeitiak hiru kilometro bertikal irabazi zituen Asturiasen joan zen asteburuan: zapatuan bi eta domekan bat. Argi dago Anboto Kilometro Bertikala birritan irabazi duen abadiñarra sasoi betean dagoela. Berea da igoera honetako denborarik one-

na, 2018tik: 45.59. Lide Urrestarazu 24 urteko promesa da; errealitatea promesa baino gehiago, esango luke batek baino gehiagok. Aurten zer egiteko kapaz den erakutsi du 32 kilometroko Camille Extreme proban eta Sorginen Lasterketan: proba biak irabazi

ditu. Faboritoen zakuan sartu beharrekoak dira Maria Zorroza —bigarren izan da Asturiasen, Azkorbebeitiaren atzetik—, Garazi Abasolo eta Maite Etxezarreta ere.

Gizonetan otxandiar bi daude irabazteko hautagaien artean: Aitor Ajuria eta Markel Urigoitia. Biak Italian jokatu den Skyrunner World Series-eko finalerako sailkatuta daudela da otxandiarren sasoi puntua ondoen islatzen duen datua. Iñigo Alzola aurkari latza izango dute. Maiatzean kilometro bertikalen Euskadiko txapelketa irabazi zuen Txindokin. Igoera hartan zazpi segundoko aldea baino ez zion atera Ajuriari. Arrasatearrak ondo ezagutzen du Anboto igoera, 2018an irabazi egin zuen eta. Imanol Goñi earra eta Jabi Goitia gernikarra ere irabazteko hautagaien artean daude.

Hasiera, 15:00etan

Parte hartzaileak banaka irtengo dira, 15:00etan hasita. Arrazolatik Anbotora 3,8 kilometroko bidea dago, 1.092 metroko desnibel positiboagaz. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro, eta hirugarrenak 100. Urtero lez, jai giroa eta jan-edanerako aukera egongo da Arrazolan, Asuntze Mendi Taldeko antolatzaileen esanetan.

Zornotzako Aramotz probagaz amaituko da mendi lasterketen Durangaldeko zirkuitua, domekan

Zornotzako mendi lasterketa hilabeteren barruan Durangaldean egiten den laugarrena izango da. Ibilbide bi egongo dira aukeran: 28 eta 17 kilometroko bana.

MENDI LASTERKETA • J.D.

Atxondoko Sorginen Lasterketa, Elorrioko Aldapegora, Zaldibarko Zaldia Trail... eta orain Zornotzako Aramotz mendi lasterketa. Hilabeteren barruan laugarren mendi lasterketa hartuko du eskualdeak. Zornotzako domeka honetan izango da eta Bizkaiko Mendi Federazio-ko ligaren barruan dago.

Zornotza Mendi Taldeko antolatzzaileek ibilbide bi prestatu dituzte:

28 eta 17 kilometroko bana, 1.800 eta 1.000 metroko desnibel positibokoak, hurrenez hurren. Biak Jaurregibarriatik hasiko dira: 08:30ean luzea eta 09:00etan laburra. Batean zein bestean, Urkiolako Parke Naturalaren barruan dagoen Aramotz mendilerroko mendietatik eta pistetatik ibiliko dira 150 bat parte hartzaileak. Proba luzean, Leungane (1.007 metro) eta Artaungan (892 metro) mendiak igoko dituzte.



Leungane eta Artaungan dira ibilbidean zehar igoko dituzten tontorretariko bi.

Zortzi zestalaririk onenak txapelik inportanteenaren bila Durangon

Datozen astelehen bietan Jai Alai Leaguen azken fasea jokatuko dute Ezkurdi Jai Alai



Atzo aurkeztu zuten txapelketa, Durangoko pilotalekuan.

ZESTA-PUNTA • JOSEBA DERTEANO

Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko txapelketarik garrantzitsuenak batzen dituen Jai Alai League liga bateratuak Durangon erabakiko ditu lehenengo edizioako txapeldunak. Urriaren 9ko eta 16ko astelehenetan izango da, 19:30ean hasita.

Liga bateratuan 24 pilotarik parte hartu dute, bost txapelketatan banatuta. Txapelketa horietan banaturiko puntuekin osatu da ligako sailkapena. Ligako lau atzelari eta aurrelaririk onenek jokatu dute Durangoko lau finala.

Iñaki Osa Goikoetxea kantxan ikusteko azken aukerarikoa da, aurten erretiratzen da eta

Datorren astelehenean finalerdiak jokatuko dituzte. Alde bate-tik, sailkapeneko liderrak laugarren sailkatuen kontra lehiatuko dira: Iñaki Osa Goikoetxea-Imanol López / Ludovic Laduche eta Thibault Basque. Goikoetxea eta López faborito argiak dira. Aurten, bikotea osatuz, Jai Alai League-aren

barruko bost txapelketetatik bi irabazi dituzte: Biarritzeko Urrezko Xistera eta Paueko Kopa. Bigarren finalerdia ligako bigarren eta hirugarren sailkatuen artekoa da: Aritz Erkiaga eta Gorka Sorozabal, Johan Sorozabalen eta David Minvielle-aren aurka.

Txapelketak beste pizgarri bat ere badu: Iñaki Osa Goikotxea kantxa batean ikusteko azken aukerarikoa izango da, aurten erretiratu egingo da eta.

Finala urriaren 16an izango da. Sarrerak www.eramanjaialai.com webgunean eskuratu daitezke.

Zuzeneko emankizunak urriaren 12an hasiko dira Olazarren

Jardunaldi guztiak 'anboto.org' webgunean jarraitu ahalko dira; eguenean Faben Ituarte atxondarrak jokatuko du



Faben Ituarte atxondarrak lau eta erdiko partidua jokatuko du.

PILOTA • J.D.

Datorren eguenean aurrera, Olazar txapelketan jokatuko diren partidu guztiak Internet bidez jarraitu ahal izango dira. Zaldia Pilota Elkarteak antolaturiko emankizunak leku bitan ikusi daitezke: 'anboto.org' webgunean eta 'Zaldibarko Udala' youtube kanalean. Iazko moduan, kalitatezko emankizuna izango da: lau kamera, errealizazio profesionala, errepikapenak... Aritz Gallastegi kazetariak eta Enrike Agirrebeitia komentariak kontatuko dute kantxan gertatzen den guztia.

Ituarte Kortazar du aurkari. Elola-Aizpurua eta Ariztegi-Aizpurua bikoteak ariko dira binakako partiduan

Datorren eguenean, lau eta erdiko eta binakako partidu bana emango dute, 21:30ean. Kaiolan Faben Ituarte atxondarrak Kortazarren kontra jokatuko du. Binaka Elola eta Aizpurua Ariztegiaren eta Apeztegiaren aurka arituko dira.

Jokaldia

Galdutako grina

Barkaidazue baina asteen ez dut ziklis-moaren inguruan ezer ere idatziko. Gaur gure lanbidea edo ofizioa aitzakia moduan hartuko dut lerro batzuk izkiri-riatzeko. Irailean hogeita hamar urte bete dira telebistan lanean hasi nintzela. Media ezagutzeko era bakarra beka baten bidez zen eta horrela egin nituen lehen urratsak kirol sailean. Aurretik Egin egunkariko Oiztik Begira Durangalderako gehigarrian idatzi nituen hastapeneko lerroak. Bizipen ezin hobea 18 urteko gazte batentzat. Ondoren, Euskaldunon Egunkaria ezagutzeko beta izan eta Lasarteko egoitzan trebatu nintzen. Hortik, jautzia telebistarako izan zen. Hogeita hamar urte hauetan dezente aldatu da ofizioa eta kazetarien izaera. U-Matic eta Betacam zintak his-



Alfonsito Arroio Monasterio
Kirol kazetaria

Ofizio honetan pasioa ezinbestekoa dela jabetu naiz, zerbait sakrifikatzen prest egon behar delako

toriaurrea dira; gaur egun dena digitalizatuta dago eta bideoak bidaltzeko zein zuzenekoak egiteko Interneten menpe gaude (nork esango zidan mugikor batekin zuzenekoak egin edo albistegietako kirol atala aurkeztuko nuenik). Ofizio honetan pasioa ezinbestekoa dela jabetu naiz, asko eskatzen duelako eta zerbait sakrifikatzen prest egon behar delako. Mundu ero honetan ezinezkoa zaigu deskonektatzea, etengabe berriak sortzen baitira. Irudiaren garaiotan, gazteek beraien burua erakusteko gosea

erakutsi digute aspaldion. Lanbidea ikasi baino lehenago, euren irudia erakustea lehenesten dute. Indabak lapikoan su baxuan egin beharrean, gurago dute ordu laurdenean presio-eltzean egitea. Sarri, alboan dutena zapaltzeko gupidarik ez dute izaten (ez denak, noski), horrek euren helburua lortzeko bidea errazten badu. Ohartu ere ez dira egiten hau maratoni bat dela eta ez 100 metroko lasterketa azkarra. Askori ez diet pasiorik sumatzen eta uste dut dabilzan moduan ibilita, ibilbide laburra izango dutela ofizioan. Hori bai, gutxiengo batzuek erakusten dute beharrezkoa den grina hori. Nagusitzen ari naizen seinalea izango da, baina gauza bat dela edo bestea dela, ofizioaren etorkizunaren inguruan ezkorra naiz. Ezkutuko interes bako pasioak salba dezake lanbide eder hau.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian

Hemen eta online 

Botikak

BARIKUA, 6 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 7 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

BALENCIAGA,
BERRIO-OTXOA 12 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 8 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 9 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 10 · 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 11 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 12 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali konturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Urriaren 4an Durangoko ile-apaintzailerik onenak urteak egin zituen. Zorionak, **Jennifer**, Matienako bezeroen partez!



Zorionak, **Zuhaitz!** Gaur 5 urte egin dozuz, sapotxin! Moxuak etxekoan partez!



Maitek eta **Iñakik** 50 urte egin dituzte ezkondata. Ez da marka makala! Zorionak, bikote, eta mosu potolo bat familiaren partez.



Zorionak esan biherko jatzu, ez? 31? Zu be ya gorantza eta akerrak moduen, gero ta zaharrau miñe kanporau dekozu. Esku artien zeoze dabixun seinale? Zeoze okerra? Oin afari baten zain geratzen gara, edo kalabazak emon biher diguzu hortan be? Besarkada bat, Perikito.

Eguraldia

ZAPATUA 15° / 32° ☀️

ASTELEHENA 14° / 29° ☀️

EGUAZTENA 13° / 28° ☀️

DOMEKA 15° / 31° ☀️

MARTITZENA 12° / 28° ☀️

EGUENA 17° / 27° ☁️

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Lurretik aldentzen goaz eta teknologiaren menpe bizi gara”

'Anbotoko Mariren altzoan', garai bateko siniskera eta pasadizoak gogoratuz ibilbide gidatua zuzenduko du Jesus Eguzkitza 'Eguzki'-k, domekan, Arrazolako plazan hasita



Jesus Eguzkitza
Gorostiza 'Eguzki'
Jubilatua
ATXONDO | 1946

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Irrati esataria, euskara irakaslea eta bikoizketan aitzindaria izan da Jesus Eguzkitza 'Eguzki'. Labayru Fundazioak ohorezko laguntzaile izendatu zuen 2019an, eta 2021etik ohorezko euskaltzain ere bada. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, ibilaldi berezia gidatuko du Arrazolako antzinako trenbidean zehar.

Zertzuk kontaktuko dituzu domekan?

Lehenengo ohitura batzuk erakutsi gura nituzke, lehenengo mundua. Arrazolako ondare immateriala, oinarrian ditugun gauza materialen bitartez: eskola, frontoia, plaza, eliza, elizatea... Trenbide zahar

zehar, Errotabarrira heldu artean, 9-12 geldialdi egin gura nituzke, Arrazolako plazan hasita. Antzinako siniskeretan ere sakondu gura nuke. Martzako Jauntxoaren agintarikeriapen, Frailearen siniskera sendoaren araupean eta Mariren adurpean bizi garela azalduko dut; adurra delarik gizakiok lurreko berezko indarrekin daukagun kontaktatzeko sistema.

Galdakon bizi zara, baina ia bizi erdia Anbotoren altzoan egin duzu. Zer sentitzen da Mariren adurpean?

Badut sentsazio moduko bat, joan diren azken 50-60 urteotan izan dugun eboluzioa azken 500 urteetakoa baino handiagoa dela. Herri-

“Jakín gura nuke zelan islatu daitekeen munduaren ikuskera zaharra gure mundu teknologizatuan”

tasun eta baserritar izatea galdu dugu, 7.000 lanbide galdu ditugu, eta gariaren eta lihoaren kultura; galdu ditugu siniskera zahar denak, eta berriagoak ere bai –erritu ikuspegitik-. Horien ordez, beste siniskera batzuk sartu ditugu. Denek lurretik harantza errotan

gaituzte, lurretik aldentzen goaz, eta teknologiaren menpe bizi gara. Ustez mundura begirako leiho bat delakoan, herria egiten ari garela-koan, geure barrurago sartzen ete goazen sentsazioa dut. Bakartiago. Jakín gura nuke zelan islatu daitekeen munduaren ikuskera zaharra gure mundu teknologizatuan. Lurreko seme eta alaba gara, eta Mari da gure lurra, gure ama, gure dena. Arrazolan lurrera hurbiltzen naiz. **Ikastolen aldeko 'Kili Kili' abestia zuk sorturikoa da. Zerk egiten dizu kili-kili zuri?**

Gauza askok. Araua ahozkoa dela sinisten dut, eta idatzia ahozkoaren ispilua. Nire borroka guztiak hortik joan dira, eta oraindino ere hori dut ardura. Neurri batean, horretan jarraitzen dut lanean, Labayrugaz. Berbakera, ez hizkuntza, ez da zero kilometrokoa; Arrazolan gazteek ez dute hiketan egiten. Ezarri den metodologiak (irakaskuntzan, hedabideetan, literaturan...) huts egin duela esango nuke. Euskarak, bat izatekotan, izan behar du eta izango da komunikazio legalerako. Lekuan lekukoari ematen zaiona baino metodologia indar handiagoa eman behar zaio.

Bikoizketan aitzindari izan zara.

Bikoizketan baino gehiago testu lanketan lan egin dut. Nire eskue-tatik itzultzaileen milioika folio pasatu dira. Horretan ibilitako 40-45 urteetan, testuak joan-etorrikoa izatea lortzea izan da nire ahalegin handiena. Hala izan behar du bikoizketan, eta alde horretatik hari batzuk markatu nituen. Esateko idatzi behar da, eta entzuteko esan. Euskara irudimentsua egin behar dugu, irudira eta oihartzunera egokitua.

Dragoi Bola marrazki bizidunekin lotuta geratu da zure ahotsa. Gainera, abestiaren egilea ere bazara.

Bai, narratzailearen ahotsa nintzen. Testuak ere berrikusten nituen, eta horri eskerrak sortu nituen hasierako eta amaierako abestiak. Askok BBCko dokumentalekin ere lotzen naute. Wester pelikuletako aktore batzuk eta Morgan Freeman ere bikoiztu ditut. Borgiatarrak teleaileko lana bereziki gogorra izan zen.

Lau-hortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Pabloren orri zuria

Orri zuriaren sindromea aurre egitea ez da gauza erraza izaten. Nondik hasi jakiteko ezintasunean, zuriunea putzu infinito bihurtu daiteke. Blokeatzen naizenetan, mahaitik altxa eta pasada bat ematen dut kaletik, mugimenduak burua astintzen laguntzen dit eta. Bat-batean letrak agertzen hasten dira espaloian, belarretan, zeruan. Ideiari heldu eta atzera ere idaztera.

Sindrome hori sufritzen duenak, ordea, normalean aukera bat ere izaten du mahai gainean: bere idazlana argitaratzeko bidea edo esperantza. Egoera okerragoa da, idatzi nahi eta uzten ez diotenarena. Horixe da, adibidez, Pablo González kazetariaren kasua; Poloniako kartzela batean hemezortzi hilabetez giltzapeturik, lau hormen artean, munduari begiratu eta ikusitakoa kontatzeko modurik barik. Espioitza delitua egotzen diote, baina argudio sendorik aurkeztu gabe. Hain zuzen, filtratu diren motiboak barregarriak dira: Pavel izena ere erabiltzea -Errusian jaio zen eta hori du jatorrizko izena-, eta Gara egunkariarentzat lan egitea, besteak beste. Zoritxarrez, Euskal Herrian badakigu zer den oinarri surrealisten gainean justizia eraikitzea, badakigu zer den kazetariak eta egunkariak preso egotea.

Hemen, mendebaldean, zorion hipotekatuaren lurraldean, munduari gainetik begiratzera ohitu garela iruditzen zait. Horregatik, bestelako errealitateak eta gatazkak kontaktatzen dituzten kazetarien beharra dugu. Pablaren orria letraz betetzen ikusteko beharra dugu.

Pablo González askatu.

SAN ROKE BARRIA
DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE
prezio bereziak